



Altsasukoak urte erdia preso

Igandean, 13:00etan, manifestazioa egingen da haien askatasuna aldarrikatzeko

>> 3

GUaiXe.eus



Historia memoria ekitaldia Urdiainen

Igandean, 12:00etan, udaletxean >> 5

Munduko Arrozak Irurtzunen

Larunbatean, 10:00etan, plazan >> 3

Olaztiko lore eta landare azokak 10 urte bete ditu

>> 6

33 lakuntzar integrazio ikuskizunean

>> 14



Burundako alkateak (Ziordiakoa falta da) Euskal Herriko Unibertsitateko Koldo Zuazo irakaslearekin.

Burundako hiztegia, bidean

>> 7



Altsasuko saskibalo taldea lauuko finalean >> 11



San Migel eta Sakanako Udako pilota txapelketak >> 10



Zergatik? album ilustratua kalean da >> 15

Lore eta Landareen 10. Azoka

Olazti

Maiatzak 14

10:30-14:30

ZORION agurrak

Argazkiak emateko lekuak: • Altsasu: Foru Plaza 23-1 • zorion@guaixe.eus
• Ordainketa, Guaixeren bulegoan edo ondoko kontu zenbakian egin daiteke:
ES56 3035 0018 47 0181012564

ARGAZKIAK ASTEBETE LEHENAGO EKARRI, TOKIRIK GABE GELDITUKO ZARA BESTELA!

Eta orain... 4 euro argazkia eta Pirritx, Porrotx eta Marimototsen opari-papera doan! Bazkideek 3,50 euro!



- Leihoen, ateen eta kontraleihoen fabrikazio eta muntaketa
- Balkoien eta terrazen itxitura
- Kolore guztietako mallorkinak
- Konpromezurik gabeko aurrekontua

info@dekovenavarra.com • www.dekovenavarra.com
Ibarrea industrialdea, 9 pabiloia - ALTSASU • Tel./Faxa: 948 468 360 • Telefono mugikorra: 690 641 860



Asier Galarza Zubiria
ZORIONAK polita!!!

6 urte eder betetzen dituzu gaur!! Oso ongi pasatu eta mila muxu. Familiaren partez.



Elai Gomez Maiz
15 urte maiatzaren 16an. Zorionak preziosoa, eta asko gozatu!



Boltio
Zorionak Boltio eta urte askotako lagun! Hi, Luis, Oihan eta beste geñakuek etxeratzien kalejire hi kontu! Eutsi goiari eta JO TA KE!!! Hi launek!

Bazkideek deskontua

Bakarra:

4,00€

Bazkideek:

3,50€

Lakuntza

Hatortxu Rock prestatzeko auzolanak igandean hasiko dira

Plazan, 8:00etan jarri dute hitzordua

Garilaren 27tik 30era Hatortxu Rock elkartean jaialdia hartuko du Lakuntzak. Hura behar bezala prestatzeko batzordeak dagoeneko lanean ari dira. Baina bileretatik aparteko lanak egiteko garaia iritsi da. Jaialdiak hartuko dituen guneak txukundu behar dira eta horretarako hiru auzolan deitu dituzte antolatzaileek. Haietan parte hartu nahi dutenek sasi-garbitzeko makinekin, lanerako arroparekin, eta eskularruekin joateko gaztigatu dute. Igandeko auzolanaz aparte, hilaren 27an eta 28an, larunbatean eta igandean dira hurrengo auzolanak, 9:00etan biak.

Etxarri Aranatz

Ennecok auzolan deialdia egin du

Larunbatean, 9:00etatik 13:30era. Harremanetarako: auzolanaenneco@hotmail.com

Eguraldia hobetzearekin batera Enneco, haritzaren memoria parkeko lanak beste erritmo bat hartu dute. Basopokala eta Danbolintxulo artean Nafarroako Erreinuuko esperientzia sozial, kultural, politiko eta instuzional guztia bilduko duen memoria-aren espazio bat sortu nahi da. Horretarako, Nafarroa Bizirik fundazio sustatzaileak auzolanak deitu ditu. Larunbatean izanen da hurrengo. Nork bere gosaria eraman beharko du.

Maiatza

12-18

Sakanan antolatzen diren ekitaldien berri emateko: gutunak@guaixe.eus

Musika

Batukada feministen kalejira. Maiatzaren 13an, larunbatean, 19:30ean Altsasuko Zumalakarregi plazatik.

10 urtez jo ta ke. Maiatzaren 13an, larunbatean, 20:00etan Altsasuko Iortia kultur gunean. **Burundar Txistulariak.**

Embajada, Alerta Gorria, Sofokaos eta Dr Inferno. Maiatzaren 13an, larunbatean, 23:00etan Lakuntzako Biltoki elkartearen.

Dantzagarriak. Maiatzaren 14an, domekan, 19:00etan Olatzagutiko San Migel plazan. **Haize Berriak banda.**

Dantza

Lanabesak. Maiatzaren 12an, ostiralean, 20:00etan Altsasuko Iortia kultur gunean. **Etorbizuna dantza taldea.**

Ikuskizunak

Ixiliik, grabatzen gaude. Maiatzaren 13an, larunbatean, 17:00etan eta 19:30ean Lakuntzako kultur etxean. **Txingurriye.**

Dokumentalak

Pilotariak. Maiatzaren 12an, ostiralean, 20:00etan Irurtzungo kultur etxean. Ondoren solasaldia.

Kuriketan. Haurtzarora eta gaztarora Arakil ibarrean. Maiatzaren 13an, larunbatean, 17:30ean (gaztelaniaz) eta 19:30ean (euskaraz) Hiriberriko kontzeju etxean.

Zinema

Mañana empieza todo. Maiatzaren 12an, ostiralean, 22:00etan eta maiatzaren 14an, domekan, 20:10ean Altsasuko Iortia kultur gunean.

Un golpe con estilo. Maiatzaren 18an, ostegunean, 19:00etan Altsasuko Iortia kultur gunean.

Bizikleta irteerak

Altsasu-Aralarko santutegia-Altsasu (100 km). Maiatzaren 13an, larunbatean, 9:00etan Altsasuko Baratzeko bideko lokomotoratik.

Irurtzun-Satrustegi-Irurtzun. Maiatzaren 13an, larunbatean, 11:00etan Irurtzungo Foru plazatik.

Balankaleku- San Gregorio (54 km)
Maiatzaren 14an, domekan, 8:30ean Altsasuko Zumalakarregi plazatik.
Barranka txirindulari taldeko mendi bizikleta taldea.

Erakusketak

Ingurumena Altsasuko institutuan. Maiatzaren 21era arte astegunetan 18:30etik 21:00etara eta domeketan 19:00etatik 21:00etara, Altsasuko Iortia kultur gunean.

Hitzaldiak

Euskararen kale erabileraren neurketaren aurkezpena. Maiatzaren 15ean, astelehenean, 19:00etan Lakuntzan, Sakanako Mankomunitatearen egoitzan. **Soziolinguistika Klusterra.**

Apreniendiendo a gestionar saludablemente nuestras crisis. Maiatzaren 16an, asteartean, 17:30ean, Iturmendiko jubilatuen elkartearen.

Azoka

10. Lore eta landareen azoka. Maiatzaren 14an, domekan, 10:30etik 14:30era Olatzagutiko San Migel plazan.

Bestelakoak

Ennecon auzolana. Maiatzaren 13an, larunbatean, 9:00etatik 13:30era Etxarri Aranazko Enneco parkean.

Euskararen Jatorriaren XI. Biltzarra. Euskera eta euskal sena. Maiatzaren 13an, larunbatean, 9:30ean Irurtzungo kultur etxean.

Munduko Arrozak, magikoak.

Maiatzaren 13an, larunbatean, 10:00etatik aurrera Irurtzungo Foru plazan.

Herri kirol proba mistoa. Maiatzaren 13an, larunbatean, 18:00etan Irurtzungo Foru plazan. **Herriko kolektiboak.**

Biltoki eguna. Maiatzaren 13an, larunbatean, 19:00etatik aurrera Lakuntzan.

Hatortxu Rock-eko auzolana.

Maiatzaren 14an, igandean, 8:00etan Lakuntzako plazan.

Historia-memoria ekitaldia. Maiatzaren 14an, domekan, 12:00etan Urdiaingo herriaren etxean.

Deialdiak

Beilatokia toki egokian. Nahi izanez gero posible da. Maiatzaren 12an, ostiralean, 19:00etan Etxarri Aranazko Kale Nagusiko 7. zenbakian.

Euskal Presoak Euskal Herrira! Maiatzaren 12an, ostiralean, 20:00etan Arbizuko eta Etxarri Aranazko plazetan, elkarretaratzeak.

Pello Mariñelarena, 24 urte. Maiatzaren 13an, larunbatean, 19:00etan Etxarri Aranazko plazan.

Jokin, Adur, Oihan Askatu! Maiatzaren 14an, domekan, 13:00etan Altsasuko kultur guneko zabalgunetik.

Euskal Presoak Euskal Herrira!

Maiatzaren 14an, domekan, 20:00etan Altsasuko plazan, elkarretaratzea.

Centro Integrado Politécnico
FP SAKANA LH
Ikastetxe Integratu Politeknikoa

Izena emateko epea maiatzaren 8tik 15era:

Gol Mallan

- **Mekatronika Industrial**

- **Fabrikazio Mekanikoko Produzioaren Programazioa**

Ertain Mallan

- **Mantenu Elektromekanikoa**

- **Soldadura eta Galdaragintza**

Gainera irakasten da:

- Zerbitzu Komertzialak (Oinarrizko LH)

- Araubide Bereziko Kirol Ikasketak (EM)

Eskaladan eta Mendi Ertainan

- Profesionaltasun Agiriak



IKASTETXE BIKAINA
CENTRO EXCELENTE



Tifonoa: 948-564-815 WWW.ifpalsasua.net



GARABATOS TALDEARI

Asteazkena, 17:00etan, Guaixen ON-LINE ELKARRIZKETA
Egin zure galderak www.guaixe.eus bidez

Ezkaatza >>

>> Irurtzun

Arrozkeratik pertsonara

Munduko Arrozak ekimena itxiko du Kulturartekotasun astea, 10:00etatik aurrera, Foru plazan

Atzera ere, Foru plazako estalpea sukalde bilakatu eta Munduko Arrozak ekimena hartuko du. Bederatzigarren edizioa du Irurtzunge ekimenak eta aurten antolatzaileek magikoa izanen dela iragarri dute. Izan ere, arrozak prestatzeko moduek eta haien dastatzeak hainbat jatorritako irurtzundarrak batzeko duen indar magikoa agerian geldituko da berriro. Maroko, Senegal, Gambia, Siria, Irurtzun, Atakondoa eskola, jubilatuen elkarte eta AEBko erara egindako arrozak nola egin ikasi eta dastatzeko aukera izanen da.

Sukaldariak eta ikasle edo dastatzaileak mahaiaren alde bietan elkartzeaz aparte, bestelakoak ere eskainiko ditu Munduko Arrozak ekimenak. Atakondoa eskolan astean landutako tailerrak plazan izanen dira berriro eta haurrek haietan aritzeko aukera izanen dute 11:00etatik 12:00etara. Gainera, eguerdian, magia ikuskizuna eskainiko dute 12 urteko Maxim Zestau eta Manu Pereira magoek. Sakanako Mankomunitateko Anitzartearen, kulturartekotasun zerbitzuak aldi berean, aniztasuna, berdintasuna, errespetua eta diskriminaziorik eza balioak sustatu ditu.

Irurtzunge kulturartekotasun astea bihar despedituko da. Arabiar komunitatearen kultura ezagarraren erakusketa eta dastatzearekin hasi zen astea igandean. Astegun bakoitza, bestalde, kontinente bati eskainia diote Atakondoa eskola publikoan. Goizetan ikasleak hari buruzko informazioa jasotzen zuten. Arratsaldeetan, berriz, jatorri desberdinetako gurasoak emakumea eta dantza edota musika gaien inguruan hizketatu ziren. Atzo Vendettako Pello Reparazen kontzertua izan zuten eta gaur munduko jakiez gozatzeko aukera izanen dute, 15:30etik aurrera.



Arabiar komunitatearen erakusketa.

>> Altsasu

Altsasuarrak sei hilabete preso



Haien askatasuna aldarrikatzena manifestazioa egingen da igandean, 13:00etan, kultur guneko zabalgunetik abiatuta

Ferietan taberna batean izan zen liskar batek Altsasuren ondorena markatu du. Tabernako beste liskar bat litzateke tartean Guardia Civilak ez baleude, haietako bat operatu ez balute, Covite sartu ez balitz eta zenbait hedabidek elur bola bat abiarazi ez balute. Espainia guztiko hedabideetan izan zen kasua hainbat astez. Haietako askok herriaren izena hankapean nola erabili zuten ikusteak altsasuarrak mindu zituen. Eta altsasuarrak sumina bihurtu zen beharrezkotzat jotzen ez zituzten atxiloketa batzuk izan zirenean. Jakin baitzekiten gazteak euren borondatez auzitegira deklaratzera joan zirela.

Azaroaren 14tik, Guardia Civilaren sarekadatik, 6 hilabete bete-ko dira igandean. Sarekadan atxilotutako 9etatik 6k preso bukatu zuten. Zazpigarren bat ere sartu zuten kartzelara. Urte erdi eta gero haietako hiru gazte preso segitzen dute Madrilgo Soto del Real espetxean. Liskarragatik zortzi gazte daude auzipeturik. Madrilen epaituz gero, Zigor Kodeko 573 bis artikulua araberak, 10 eta 15 urte arteko espetxe zigorrak jaso ditzakete. Sarekada gogorarazteko hilabete guztietako 14. egunean mobilizazioak egin dira Altsasun. Oraingoan "zentsugabekeria horren kontrako" manifestazioa egingen da.

Jokin, Adur, Oihan Askatu! 6 hilabete zentzugabeko espetxaldian leloa izanen du. Kultur

guneko zabalgunetik abiatuko da manifestazioa. Auzipetuen guraso eta lagunek, beste behin, altsa-

suarren eta sakandarren babesa espero dute, "egoera anker honi erantzuteko".

Kronologia

- >> 2016-10-15 Guardia Civilen, haien bikoteen eta gazteen arteko liskarra izan zen.
- >> 2016-10-17 Atxilotutako bi gazteak Mari Paz Benito epailearen aurrean deklaratu zuten.
- >> 2016-10-18 Covitek Espainiako Auzitegi Nazionalen salaketa jarri zuen.
- >> 2016-10-22 Muntaiak eta hedabide batzuen trataera salatzen hasieran.
- >> 2016-10-26 Bost gazte Iruñeko epailearen aurrean deklaratzera joan ziren. Ez zegoen.
- >> 2016-10-27 Guardia Civilaren txostenak ez du terrorismo zantzurik ikusten.
- >> 2016-10-28 Beste bi gazte Iruñean deklaratzera saiatzen dira. Asmoa adieraziz agiria sinatu zuten.
- >> 2016-11-07 Falangeren mehatxu pintada Koxka tabernan.
- >> 2016-11-09 Iruñeko 3. Instrukzio Epaitegiaren inibizioa, Espainiako Auzitegi Nazionalaren esku. Espainiako Auzitegi Nazionalak Carmen Lamela epaileak beretako eskatu zuen kasua.
- >> 2016-11-10 El Mundok altsasuaren izen abizenak argitaratu zituen, adin txikikoek barne. Batzuek hala jakin zuten inputatuta zeudela.
- >> 2016-11-14 10 gazte altsasuar atxilotu zituzten Espainiako Auzitegi Nazionalaren agindurik gabe. Atxiloketen kontrako manifestazio jendetsua.
- >> 2016-11-15 Nafarroako Gobernuak atxiloketak ez zirela beharrezkoak adierazi zuen. Atxiloketak salatzen hasieratu.
- >> 2016-11-16 Altsasuko Udalak azaroaren 26rako manifestazioa deitu zuen. Madrilen deklaratu ondoren beste

gazte bat kartzelara. Zazpi guztira.

- >> 2016-11-19 Manifestaziora deitzeko prentsaurreko handia.
- >> 2016-11-21 Nafarroako Parlamentuak atxiloketak errefusatu zituen.
- >> 2016-11-26 20.000 bat pertsona elkartu ziren manifestazioan.
- >> 2016-12-02 Auzipetuen gurasoak Nafarroako Parlamentuan azalpenak eman zituzten.
- >> 2016-12-14 Hilabete preso. Salatzeko Burunda frontoia bete zuten.
- >> 2016-12-20 Lau gazte aske utzi zituzten. Auzipetuen gurasoak Espainiako Kongresuan hainbat taldeetako ordezkariekin bildu ziren. Auzipetuen etxeetara giza katea.
- >> 2016-11-21 Askatasuna eskatzeko ostiraleroko kontzentrazioak hasi zituzten.
- >> 2017-01-07 Atxiloketen ondorengo herri batzarren parte hartzeagatik 10 isun iritsi ziren.
- >> 2017-01-08 Altsasuko askatasuna eskatzeko kontzentrazioa Madrilen.
- >> 2017-01-21 Elkartasun bazkariak Altsasuko elkarteetan.
- >> 2017-01-26 Herri asanbladak auziari buruzko maiatz arteko hitzaldi bira aurkeztu zuen.
- >> 2017-01-27 Manifestuaren Sakanako aurkezpena.
- >> 2017-01-28 Soto del Real espetxera martxa.
- >> 2017-01-31 Lege arloko profesionalen manifestuaren aurkezpena.
- >> 2017-02-02 Manifestuaren aurkezpena Iruñean. 130 pertsona ezagunen sinadurarekin hasi ziren. Nafarroako Lurralde Auzitegiak defentsaren helegitea aztertzen hasi zen.
- >> 2017-02-13 Bi adin txikiko

deklaratzeko izan ziren Madrilen.

- >> 2017-02-14 Argi itzalaldia hiru hilabeteko espetxeratzea salatzen.
- >> 2017-02-16 Nafarroako Parlamentuak gorteei Zigor Kodeko 573. artikulua aldatzeko eskatu zion.
- >> 2017-02-22 Altsasuko Udalak hiru gazteen askatasuna eskatu zuen.
- >> 2017-02-24 100 egun preso, salaketa kontzentrazioan 2.000 pertsona Iruñean.
- >> 2017-03-07 Gazte baten auzipetzea baliogabetua. Auzian 8 daude, bi adin txikiko.
- >> 2017-03-08 Bi asteroko kontzentrazioak egiten hasi ziren Iruñean.
- >> 2017-03-14 Kazolkada 4 hilabeteko espetxealdia salatzen.
- >> 2017-03-22 90 diputatu eta senatari inguruk adierazpen bateratua aurkeztu zuten.
- >> 2017-03-23 www.altsasugurasoak.com web orrian manifestua sinatu daiteke.
- >> 2017-03-24 Nafarroako Lurralde Auzitegiak helegitea onartu eta Iruñean epaitzea eskatzen du.
- >> 2017-04-05 3 presoen askatasun helegitea atzera bota zuen Espainiako Entzutegi Nazionalak. Gurasoak azokan sinadurak biltzen hasi ziren. Hiru asteazkenetan izan ziren.
- >> 2017-04-14 Kontzentrazioa 5 hilabete preso zeudela salatzen.
- >> 2017-04-15 Futbol 7 txapelketa.
- >> 2017-04-28 Kulturaz Aske asteburua hasi zen.
- >> 2017-05-03 Manifestuak 18.000 sinaduren babesa zuen.
- >> 2017-05-06 Muntaien kontrako manifestazioa Madrilen.



Raf Atxuri

Koroarik gabe, askoz hobe

astekoa

barrutik kanpora

Nafarroa Garaiko herriko etxetatik ikurrina desagerrarazi zuen dekretua bertan behera gelditzekotan da eta ika-mika horren harira nafar-espainar parlamentarioen gainezkako performance handios baten entzunikusle suertatu ginen foruherripirenaikoan. Sufrezko solas-oldarraldiak, odol pozointzuzko ttuak mikroen aurrean eta foru-apokalipsiaren deskribapen zehatzenak. Horiek guz-

tiak eta beste hamaika entzuteko parada eduki genuen harako hartan. Honenguztiaren osagarri, nafar bandera ofizialaren erakustaldi oparoa eskuindarren eserlekuetatik. Nafarroa Garaiko bandera ofizialarena, 1910ean Campión eta Oloritz protoabertzaleek proposatu eta Diputazioak onetsi zuena. Kateadun armariari koroa zinez nabarmenak gailurra paratzen dion nafar ikur instituzionala.

Ez zen beti horrela izan, ordea, Erdi Aroko hainbat irudik garbi erakusten diguten legez. Nafar armariak ez zuen ez katearik, ez esmeraldarik, ez koroarik. Horiek guztiak gero etorri ziren. Askoz xumeagoa genuen armaria, halako lauki bat, zeinaren erdi-erditik zortzi izpi zuzen ateratzen baitziren aldeetara. Egia da, zernahi gisaz, 1910ean nafar anitz ez zirela jakitun Nafarroako Erresumaren historia, eta

apika koroaren tamainaz nabarmendu nahi izan zuten izate hura. Artean Nafarroan errepublikazale gutxisko ziren, baina egun, zenbat dira erregezale Erresuma zaharrea? Nabarraldekoek historian zeharko beste hainbat nafar ikur plazaratu dituzte, baita oihaletara eramane. Horietako bat gero eta gehiago ikusten dugu plaza nahiz balkoietan. Koroarik gabe eta ofiziala bezain nafar.

Hara zer dien

Familia prebentzioko prestakuntza

Hiru Gizarte Zerbitzuetako Prebentzio programatik, beste alditan esan dugun bezala, familia lana oso garrantzitsua iruditzen zaigu. Familiaren funtzioa garrantzitsua da. Aurten, besteak beste, eskualdeko APYMA guztiei "prebentzio lana egin familian" tailer berezi bat egitea proposatu diegu. Kasu honetan Etxarri eta Altsasuko eskualdeak elkartu gara ideia aurrera eramateko. Ia Apyma guztiak onartu dute proposamena eta parte hartzen ari dira. Aktibitate honetan bi alde daude: lehenengoa, Apyma bakoitzetik bi edo hiru pertsona prestakuntza egiten ari dira, prebentzio programaren teknikariarekin batera. Biga-

rrena, eta garrantzitsuena, pertsona hauek, besteei gai hau tailer moduan lantzea proposatuko diete. Pertsona hauek ez dira adituak, bere maila bestearen berbera da. Hona hemen haien lana: tailerra zuzendu eta kudeatu eta denon artean tailerlean planteatzen diren ideiak landu. Helburuak: familiok, drogen aurrean daukagun garrantziaz kontzientziatu eta familiei droga kontsumoaren arrisku faktoreak eta babes faktoreak identifikatzen laguntzeko ideiak eman. Eta honako hauek izango dira landuko ditugun gai eta ideia batzuk: familiaren sozializazio lana funtsezkoa da seme-alaben nortasuna garatzeko eta garran-

tzia bera du gurasoek etxean zer familia giro sortzen duten; alde batetik, seme-alabek familia baten parte direla sumatu behar dute, eta bestetik bakarrik eta desberdinak direla, zein bere berezitasunen jabe. Beste aldetik, lantzen direnak eredu batzuk dira, adibidez: noiz hitz egin drogen arriskuez gure seme-alabekin? Honen inguruan gomendio hauek eman ditzakegu: 10 urte bitarte, ez da egokia zuzenean drogen kontua ukitzea. Baina gai eta ideia hauek landu daitezke: gozokiak modu kontrolatuan edo neurririk gabe jatearen arteko aldea: enpatxuaren arriskua eta botikak behar direnean eta tamainan hartuz gero onak dira.

Etxean ez da "farmaziarik" behar. 10-14 urte bitarte, aipatu dakieke ona dela legezko drogak alkohola eta tabakoa ez hartzea, eta azaldu zein kaltegarriak diren osasunarentzat; gazteak zergatik hasten diren kontsumitzen eta, gainera, gurasoek kritikoki jokatu behar dute gizar-teak bidaltzen digun mezuarekin, alkoholaren eta tabakoren kontsumoa arrakastari, olgetari, abenturari, lagunak egin eta ligatzeari lotzen baitie. 14 urtetik aitzina, lehen aipatutakoaz gain, ona da legez kanpoko drogen gaia sartzeari adin honetan eta egoera horrek gehitzen dituen arriskuak (substanzia aizundak, legezko ondorioak...) azpimarratzea. Hemendik animatu nahi ditugu interesatuta dauden pertsonen prestakuntza honetan parte hartzera.

Sakanako Prebentzio Programak

gutunak

Atal honetan ahalik eta iritzi gehienek tokia izan dezaten **1.500 karaktere** (espazioekin) baino gehiago duten gutunak EZ DA ONARTUKO. Karaktere kopuru horretatik gorako gutun guztiak LABURTU egiten dira. Gutunean izen-abizenak, telefonoa, helbidea

eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Gutunak asteazkeneko goizeko hamarretarako egon behar dira gurean; bestela, ez da aste horretan publikatuko. Guaixe aldizkariak ez du bere gain hartzen derrigorrez, aldizkarian adierazitako esanen

eta iritzien erantzukizunik. Zure iritzia helarazteko:

Foru plaza, 23, 1 Altsasu; gutunak@guaixe.eus edo 948 564 275 telefonoa.

Pello Mariñelarena XXIV urte

Juan Kruz Aldasoro Jauregi

1993ko maiatzaren 15ean hil zen Pello Pariseko espetxe bateko erizaindegian. Pello ez zuten hiltzeko ere libre utzi. Pello ez zen izan Frantziako espetxe batean bizia galtzen zuen lehen preso politikoa. Ihesean zebilela Pellori babesa eman zion Jean Groix Bretainiarra ere espetxean hil

zen hilabete batzuk lehenago. Espetxeak eritasunak sorrarazi eta gaiztotu egiten ditu, espetxean ez dago aukerarik osasun arreta duina izateko. Hogeita lau urte eta gero, Oier Gomezi sei hilabeteko bizitza aurreikuspena duenean eten dio zigorra Frantziak, eta Espainiak barne ministerioak aitortu du hil baino bi hilabete lehenago kaleratuko dituela gaixotasun larriak dituzten presoak. Hauda

bi Estatuen maila. Soilik mugituko dira beraien jarrera lotsagarriak kosteak eragiten dienean. Eta hori gertatzen da jendar-te osoa eta nazioarteko eragileak bat eginda mobilizatzen direnean. 12 euskal preso larriki gaixo daude: J. Codo (espondilitis ankilosantea), G. Fraile (mingainaren kartzinoma), M. Azkarate (porta zaineko kartzinoma), Abetxuko (bihotza eta prostata), J. Arizkuren (bihotza), I. Fdz. Ira-

di (esklerosi anizkoitza), G. Arruarte (aldebiko ubeitis akutua), I. Iparragirre (VIH C-3 estadioan), T. Martin (eskizofrenia paranoidea), A. Gogorza (Obsesio Konpultsio desoreka), J. Borde (adenokarzinoma kolonean) eta I. Etxeberria (Miopia Magnoa). Denek aske egoteko esku-bidea dute. Osasuna berreskuratzeke, ez hiltzeko. Gogoan izanen ditugu larunbatean Etxarrin.

Teknologiak erraztu edo zaildu

Wikipediaren arabera, teknologia, grezierazko τεχνολογία-tik, tekne(τεχνη, "zientzia, arte, edolanbide") eta logos(λογος, "jakintza-multzoa") hitzez osatuta dago. Kontzeptu zabalenean, espezie batek tresnak sortu, erabili eta inguru-nea berenahi eta beharretara aldatzeko duen jakintza-multzoi deritza teknologia. Teknologia, hain zuzen, objektu horiek guztiak diseinatzeke eta fabrikatzeko teknikak, makinak eta prozesuak aztertzen dituen diziplina da.

Azken urte hauetan, teknologiaren garapena izugarria izan da. Egund, teknologiaren bitartez edozer gauza egin zein erosi dezakegu. Amazon da horren adibide nagusia. Edozer gauza aurkitu daiteke eta egun gutxitan, erositakoa etxean edota bulegoan izango dugu. Nork pentsatuko luke hau orain dela 20 urte inguru? Gainera, ordainketa seguruaren bitartez segurtasun osoa ematen digu erosketan prozesuan.

Elikadura sektorean, adibidez, 3D inprimatzeak sektorea guztiz eraldatu dezakela aipatzen hasia da. Natural Machines-ek (Foodini inprimatzailea) etxean erabili ahal izateko 3D inprimatzeak sortu ditu eta Oskook empresa gipuzkoarrak aldiz, 3D inprimatze profesionala sortu du, jatetxe zein elikadura sektorerako. Turismo sektorean ere, azken urtean hainbat enpresa berri sortu dira. Gaur egun, zeinek ez ditu bere oporrak internet eta aplikazio berrien bitartez erreserbatzen?

Gure azken bidaia Londresera izan zen. Hegazkina erreserbatzeko, Momondo, Edreams, Skyscanner bezelako plataformen bitartez erosi genuen. Bertan aurkitu daitezke preziorik onenak. Bestalde, Airbnb plataformaren bitartez erreserbatu genuen logela bat. Hotelak baino prezio askoz hobean, nahiz eta hain luxuduna ez izan. Eta nola mugitu hiriburu batetik? Azkenaldian, taxi konpainiekin arazoak izaten ari diren Cabify eta Uber enpresak aurkitu ditzakegu. Txofer pribatu baten bitartez, mugikor batetik, Cabify edo Uber bat eskatu eta minutu gutxian nahi duzun lekuan duzu. Zein da zuen iritzia? Teknologiak erraztu ala zaildu?

Sakantzen Sarea

Guaixe  

ERREDAKZIO BURUA: Alfredo Alvaro Igoa • guaixe@guaixe.eus
ERREDAKZIOA: Maider Betelu Ganboa • kirolak@guaixe.eus
MAKETATZAILA: Ruben Imaz Alcaide • maketazioa@guaixe.eus
PUBLIZITATEA: Maria Saez de Albeniz • publizitatea@guaixe.eus
eta Eneida Carreño Mundiñano • publi@guaixe.eus

KOLABORATZAILAK: Larraitz Amadoz Lazkano, Erkuden Ruiz Barroso.

ZUZENTZAILA: Felix Altzelai

ARGITARATZAILA: Guaixe Fundazioa. Foru plaza 23-1. 31800 Altsasu • 948 564 275 • 948 562 107 • 618 882 675

KOORDINATZAILA: Goizeder Anton Iturralde • fundazioa@guaixe.eus

DISEINU ZERBITZUA: GK • Ainhoa Etxeberria Pikabea •

gk@gkomunikazioa.eus

ADMINISTRAZIOA: Gixane Andueza Goikoetxea • admin@guaixe.eus

LEGE GORDAILUA: NA-633/1995

TIRADA: 3.200

LAGUNTZAILAK:



Nafarroako Gobernu
Gobierno de Navarra

SAKANA

eLe festa, euskal hiztun berriei harrera festa

6 hiztun berri eta 4 mintzakide sakandar omendu zituzten larunbatean

Sakanako AEK-k, Mintzakide programak eta Sakanako Mankomunitateko Euskara Zerbitzuak euren burua euskalduntzeko egindako ahalegina eta Sakanako euskaldunen komunitatea handitzeko erabakia eskertu zieten omen duei. 10 izan ziren, agenda arazoengatik beste batzuk ezin izan baitzuten ekitaldian izan. Banan-banan, aitortza jaso zuten izen-abizenak esan, eta jendaurrera atera ziren. Haien aurretik euskalduntzea erabaki zuten beste hiztun sakandar batzuen eskutik opari bana jaso zuten omen duek.

Jarraian, ibarreko euskaldunen komunitatea kide berriei handitu dela ospatzeko, elkarri euskara oparitu zioten mintzo-

dromo batean. Zazpi taldetan banatuta, hiztun berriei eta mintzakideek euskarazko komunitateko kide berriak ezagutu eta haiekin euskara praktikatu zuten.

Ikasteko aukera gehiago

Larunbatean omendutako en-dua segitu nahi dutenek AEK-ren Itsasi euskaltegian izena eman dezakete. Aurrematrikulazioa ekainean zabalduko da. Aukera hori baliatzen dutenek % 5eko

Bideoa



Omenduen eta aita-amapontekoen talde argazkia.

deskontua izanen dute. Bestela, Sakanako AEKn ohiko matrikulazioa egiteko aukera izanen dute irailean. Informazioa eskatu daiteke 948 468 258 telefonoan edo Itsasi euskaltegian. AEK-k udarako barnetegi eskaintza zabala du.

Euskara ikasleek, bestalde, Sakanako Mankomunitatearen diru-laguntza eskatzeko aukera dute. Eskabideak ekainaren 1etik uztailaren 31ra arte aurkeztu

behar dira Sakanako Mankomunitatearen egoitzan, Lakuntzan.

Bestalde, Sakanako Mintzakide programan izena emateko epea irailean zabalduko da. Astean behin, hiruzpalau lagun elkartu eta gustuko jarduerara egin bitartean euskara praktikatzeko aukera bikaina da, eta, gainera, doan. Informazio gehiago 600 482 024 telefonoan edo Itsasi euskaltegian izanen dute. +www.guaixe.eus

Omenduen zerrenda

Omendua	Aita-amapontekoak
Eva Garisoain	Ana Aberasturi
Pili Rellan	Maitte Miguel
Rabeb Ridane	Javi Paz
Marian Fresneda	Laura Latorre
Inaxio Lezea	J. Manuel Sanchez
Isabel Muñoz	Estitxu Lopez
Eider Etxeberria	Ines Ormaetxea
Sonia Maria	Josu Ducar
Ane Sanchez	Rosa Mendoza
Jose Angel Arregi	Jose M ^a Rodriguez

Ardi latxa sustatzeko plana martxan

Sektoreko eragile guztiek asteartean abiarazi zuten plana, 2018rako egina egonen dena

Isabel Elizalde, Landa Garapeneko, Toki Administrazio eta Ingurumeneko kontseilariak, astearteko bileraz esan zuenez, "ibilbide orri baten ildo nagusiak ezarriko ditugu, horrela, 2018. urtean, Laxa Ardiaren Plan Estrategiko bat izateko. Planaren edukiak jarduerak zehatzak ezarriko dizkio Nafarroako Gobernuari ekoizpen-eredu hori indartzeko, etorkizuneko landa-ingurunearen aldeko apustua egiten duten belaunaldi berriendako eta emakumeendako errentagarria eta erakargarria izan dadin".

Kontseilariak esan zuenez, "sektore honek eginkizun estrategikoa du lurraldearen eragile gisa, oreka eta enplegua ematen



Planaren eraketan parte hartu zutenak jardunaldira sartu aurretik.

dizkio ekonomia-jarduerara hain handia ez den lekuetan. Ustiapen horiek gabe, etorkizuneko aukerak mugatzen dira landa-eremuetan; mendi-eremuetan batik bat". Nekazaritzako buruak jakinarazi du maiatzean Nafarroako Gobernuak Landa Garapeneko Programan eskatutako aldaketak onetsiko direla, lurraldearekin lotuta dagoen produkzio-eredu

hedakorreko eredu bat finkatzen aurrera egiteko. Horrela, goimendiko eremuetan konpentsazio-ordainketa handituko da, eta hektareako 71 eurotik 106,5 eurora izatera pasako da. Mendi-eremuetan, 51,19tik 76,79ra pasako da. Muga naturalak dituzten eremuetan ere handituko da konpentsazioa: 40 eurotik 60 eurora hektareako. +www.guaixe.eus

Urdiain Historia-memoria ekitaldia



Senideek Paco Etxeberriaren azalpenak adi jarraitu zituzten.

Domekan, 12:00etan, Urdiaingo herriaren etxean

1936ko estatu kolpearen ondoren eraildako Francisco San Roman Galbeteren gorpuzkinak familiak jasoko ditu igandean. Otsoportilloko lezetik atera eta identifikatu zituzten Aranzadi zientzia elkarteko kideek, Paco Etxeberria buru zuten lantaldeak hain zuzen. Joan zen urtean Urdiaingo Udalak Nafa-

rraoko Gobernuari gorpuzkinak bilatzeko eskaera egin zion eta gobernuaren eta udalaren eskaera betez lan egin zuten Aranzadi-koek.

Nafarroako Gobernuak Ana Ollo kontseilaria eta Paco Etxeberria forentsea izanen dira. Ekitaldi publikoa xumea izanen da. Udalak aurretik erakunde-adierazpena onartua du eta haren kopia familiarri emanen dio. "80 urte ta gero familiak zauria ixteko, horretarako da ekitaldia. Bazen garaia. 80 urte pasa behar izan dira bage nekiena, egia zena, behingogatik ofiziala izateko", esan du David Oroz alkateak.

Francisco San Roman Galbete Urdiaindarra, Josefaren eta Juan Estebanen semea 1901eko maiatzaren 20an jaio zen Altsasun. Maria Goikoetxea Solanarekin ezkondua, lau seme-alaba izan zituzten (Migel, Ruperto, Josefa eta M^a Rosalia). Porlandegian lan egiten zuen. 1936ko irailaren 25ean fusilatua zuten. Hil zutenean 35 urte zituen.

BILTOKI
TABERNA • JATETXEA

Pintxoak
Bokatak
Plater konbinatuak
Karta

Asteleheneretik ostiralera
Eguneko menua
9€

Asteburuetan
Menu berezia 25€

948 467 876 • Altsasu

Kaixo
Kafetegia-Jatetxea

JATETXEA - RESTAURANTE • KAIXO • BAR-CAFETERIA

GARCIA XIMENEZ 20-22
948.46.91.24 ALTSASU
www.restaurantekaixo.com

PORTUKO
OKINDEGIA

ogiararen
artisauak

Altsasu
948 563 822
Lantegia
948 467 153
Etxarri Aranzatz
948 460 988

» Arakil

Arakili buruzko bigarren dokumentala mustuko dute

Kuriketan, Haurtzarora eta gaztarora Arakil ibarrean larunbatean, 17:30ean (gaztelaniaz) eta 19:30ean (euskaraz), Hiriberriko kontzejuan

Arakilgo Udalak sustatuta Labrit multimedia ekoiztetxeak ibarreko ondare ez materialari buruzko bigarren lana egin du: Kuriketan, haurtzarora eta gaztarora Arakil ibarrean. Ondare ez materiala jasotzen trebatutako etxea da Labrit. 2012 eta 2013 urteen artean adineko 25 arakildar elkarrizketatu zituen eta haien bizipenen inguruan galdetu zien. Handik sortu zen Arakilgo haizea dokumentala, Hiriberrin, 2014ko lastailaren 4an mustu zena.

Labriteko kideek pertsona bakoitzari bi ordu pasako elka-



Ruben Goñi aurreko dokumentalaren nondik-norakoak bildutakoei azaltzen.

rrizketak egin zizkieten. Ondare hori arakildarren artean zabalteko asmoz udalak bigarren lan bat argitaratzea erabaki du. Oraingoan joan den mendeko haur eta gazteen bizitza nola zen ezagutzeko balioko du. Elkarriz-

ketatuen lekukotzak gaur egungo arakildarren errekreazioen irudiekin batera emanen dituzte. Esaterako: ibai ondoko jolasak, bataioa, dantzaldia, eskola, pilota edota kintoen tailatzea islatzen da haietan.

» Olatzagutia

Hamargarrenez lore eta landare artean

Lore eta landare azokak hamar-kada beteko du domekan. Etxeak edertu edo baratzeak egoki jarri nahi dutenek aukera ederra dute lore eta landarez hornitzeko. Azoka 10:30etik 14:30era egonen da zabalik San Migel plazan. Azokarekin batera loreak landatzen eta sortzen tailerra izanen da haurrendako, 11:00etatik 13:30era. Egitaraua Haize Berriak Sakanako bandak San Migel plazan emandako kontzertuarekin osatuko da. Eguraldiak lagunduko ez balu guztia Erburua kiroldegira lekualdatuko litzateke.



Postua	Parte-hartzaileak	Herria	Produktuak
Segurako negutegiak	Jose Mari Setien	Segura	Baratzekoak, loreak, lorontziak
Alivia tailerra	Maika Eras	Arbeiza	Baratzekoak, loreak, lorontziak
Urretabizkaia lore-d.	Aritz Urretabizkaia	Arama	Aromaterapia, kuxinak, zakuak
Erlan ezitia	Joseba Villacorta	Izurtza	Erlauntzetako produktuak
Urtinea	Ioseba Segurola	Usurbil	Loreak eta landareak
Gure Lurra	Juan Carlos Olarte	Gasteiz	Sendabelarrak
Aranburu mintegiak	Imanol Aranburu	Aginaga	Zuhaikka apaingarriak, landareak
Hur olio-Bubisik	Irantzu Garcia	Iturmendi	Hur produktuak: olio, hurrak

» Altsasu



25. urteurren beroa

Altsasuko artisau azokak jendetza erakarri zuen. Foru plazaren erdigunea artisauak bete zuten eta

euren jardunean aritu ziren. Aitzinako ogibide haiek biziberrituta ikusteko jakin mina azaldu zuten makina bat altsasuarrek eta bisitarik. Asteburuango erdiera izan zen.

SAKANA

Red Bayko alkatearen bisita

San Juan baleontzia Ternuan urperatu zen XVI. mendean, Red Bayn hain zuzen ere. Hango alkate Wanita Stone igandean Altsasuko Usolarrainen izan zen, baleontziak egiteko zuzaitzak nola lantzen zituen ezagutzen.



» Iturmendi

Festak, giro ederrean



» Arruazu

Albi gaztandegia bosgarren Idiazabalen

20. urteurrena zuen aurten Idiazabalgo Gazta Egunak. Zerbaki boro-bila zela eta Goierriko herria aste-buruan, bi egunez, euskal gaztaren erdigune bihurtu zen. Estreinakoz Euskal Gaztaren Azoka antolatu zuten. Herri dastatzea egin zen eta Eginoko La Lezek irabazi zuen dastatzea eta Arruazuko Albi gaztandegia, berriz, bosgarren izan zen.

» Nekazarien eguneko topaketa Itxasperrin



Astelehenean nekazarien patroia edo San Isidro eguna ospatuko da. Ohi-turari segituz arakildar ugari Egia-rretako Itxasperi ermitarako bidea hartuko dute. Egurdian ibarreko hildakoen omenezko meza izanen da. Hura bukatu eta gero, apaiza ermitaren atera eta handik Arakilgo soroak eta larreak bedeinkatuko ditu. Egiteko horiek despedituta Arakilgo Udalak prestatutako otamenaz gozatzeko aukera izanen da.

» Altsasu

Udalak haur hezitzaileen lan-poltsa sortuko du

Txirinbulo haur eskolan haur hezitzailearen lanpostuan aldi baterako kontratazioaren bidez aritzeko Altsasuko Udalak izangaien zerrenda osatuko du. Lan-poltsak 3 urteko iraupena izanen du: 2017ko gari-laren 1etik 2020ko garagarriaren 30era arte. Eskabideak maiatzaren 19ra arte aurkeztu daitezke Altsasuko udaletxean. www.alsasua.net/eu/web/orrian/daude/deialdiari/buruzko/argibide/guztiak.

Non erabili

REDIN LURRINDEGIA ETA KOSMETIKA

ALTSASU

%5eko deskontua osagarrietan.

LIZARDI ESTETIKA ZENTROA

ETXARRI ARANATZ

%5eko deskontua tratamendu guztietan.

HOSTO GORRI ALTZARIAK

ETXARRI ARANATZ

Dendako produktuetan %5eko deskontua.

ARGIRO OPTIKA

ETXARRI ARANATZ

%15eko deskontua graduatuetan eta %5 eguzkitakotan.

ZELANDI KIROLDEGIA

ALTSASU

Lehenengo matrikula doan.

IZARA

ALTSASU

%5eko deskontu zuzena etxeko jantzi eta osagarrietan.

TXIKITXO

ALTSASU

60 €tik gorako erosketetan, %10eko deskontu-txartel bat hurrengo erosketan erabiltzeko.

NAMASTE YOGA

ALTSASU

Bi yoga klase doan.

TIPI TAPA OINETAKOAK

ALTSASU

60 €ko erosketatik %10eko deskontua (eskaintza ez metagarria).

VIZU ILEAPAINDEGIA

ITURMENDI

30€ko gastuarekin, %10eko deskontua.

www.guaixe.eus-en zerranda osoa ikusgai



BAZKIDETZA 50€
948 564 275



» Burunda

Udalek euskalkiari “babesa eta bulkada” emateko erabakia hartu dute

Burundako euskararen hiztegia izanen da ahaleginaren aurreneko urratsa. Koldo Zuazok hitzak jasoko dituzten herritar taldeak sortzeko deia egin du

Burundako alkateek, Koldo Zuazo EHUko irakaslea aita-ponteko zutela, euskalkiaren aldeko hitzarmena sinatu zuten astelehenean. Hiru arrazoi eman zituzten Burundako euskarari “babesa eta bulkada” emateko. Batetik, “hizkera hau aztertu dutenek aho batez aitortu dute haren nortasuna”. Inguruan dituen hizkeretatik desberdina dela eta “beharbada, mendebaldean (Araba) eta hegoaldean (Ameskoa) egiten ziren hizkeren antza” zeukala. Bi horiek galduek badaude ere, Burundakoa “betiko gal ez dadin geure ahalegina egin nahi dugu”.

Burundako hizkerak gaur egun duen osasuna ere aitortu dute:

Urdiainen bizirik, Bakaikun eta Iturmendin galbidean eta Altsasun, Olatzagutian eta Ziordian galduta. Udalek ikusirik “gazte sail hazi samar batek gure arbasoen euskara ikasteko eta erabiltzeko gogoia agertu” duela, Burundako udalek “gogo horrekin bat egin eta gure esku dagoena egiteko erabakia hartu dugu”.

Burundako hiztegia

Ibarreko euskararen hitzak jasoko dituen hiztegia lantzen hasiak dira bi urdindar: Mikel Arregi (Iñigo Aritza ikastolako irakaslea) eta Mikel Galartza. Euren lana azarorako despedituko dute. Hilabete horretan hiztegia lantzeko beste Koldo Zuazok egonaldi bat eginen du Urdiainen. Zuazok laguntzaileak izanen ditu: Urdiaingo Udaleko langile Mariano eta



Victoriano Gabirondo Lanz (Iturmendi), Javier Olló Martínez (Altsasu) David Oroz Alonso (Urdiain), Mikel Azkargorta Boal (Olatzagutia) eta Egoitz Urritzaz Lazkoz (Bakaiku). (Ziordikoak ezin izan zuten egon)

Javier; azken horren aita eta Julian Etxeberria. Zuazok jakinarazi zenez Bakaikun ere talde bat hasi da hitzak biltzen. “Guri gustatuko litzaziguke beste herrietan horrelako zerbitzu egiten balute. Guretzatko laguntza handia litzateke”.

Lana urte bat barru bukatua izatea nahiko lukete. Paperean argitaratuko da, eta Interneten kontsultagai jartzeko asmoa ere badute. Baina Zuazok gaztigatu duenez, “hiztegi bat ez da seku-

la bukatzen. Guk ere ez ditugu hitz guztiak batuko. Oinarrizkoenak edo eskura ditugunak bilduko ditugu. Bilatuko dugu modu bat jendea aberasten joateko”. Hiztegi hitzak irakaskuntzan, hedabideetan eta beste arlo batzuetan erabiltzeko aukera izanen dela azaldu du unibertsitateko irakasleak.

Zuazok argi utzi zuenez, “gure helburua ez da euskara batuaren kontra egitea. Alderantziz, gu

batuaren alde gaude. Orain arte bezala, hemendik aurrera ere udaletako txosten teknikoak euskara batuan egiten direla, ikastetxeetan euskara batua erabiliko dela, burundarrak beste euskal herritarrekin batuaz hitz egiten dutela”. Burundako euskara zergatik indartu? “Bertoko jarduna delako, haur eta gazteek euren egunerokoan erabiltzeko. Hori da euskalkiari eman nahi zaion lekua”.

» SAKANA

Euskararen kale erabileraren neurketaren datu aurkezpena

Astelehenean, 19:00etan, Sakanako Mankomunitateak Lakuntzan duen egoitzan

Soziolinguistika Klusterrak, Sakanako Mankomunitatearen laguntzaz, ibarreko hainbat herritan euskara zenbat erabiltzen den neurtu zuen 2016an. Euskararen erabileraren datuak, ezagutzarekin eta herritarrek hizkuntzekiko duten jarrerarekin batera, oinarriko elementuak dira hizkuntza politika egokia egiteko. Hiru arlo horietan jasotako datuetan oinarritzen dira hizkuntza normalizatzeko planteamenduak. Beraz, euskararen normalizaziorako datu garrantzitsuak aurkeztuko dituzte astelehenean. Halako neurketak 1989an, 1993an, 1997an, 2001ean, 2006an eta 2011n egin dira ere.

» Uharte Arakil

Autokarabana gune berria Uharte Arakilen

Larraitz Amadoz Lazkano

Itxesi inguruan eta Beriain mendiaren magalean leku paregabean mustu zuten joan den igandean Uharte Arakilgo autokarabana gune berria. Duela urte bat martxan jarri zen gunea, baina aurreko asteburua data aproposa ikusi zuten udaletik inaugurazio ofiziala egiteko. Tximeleta Elkarteak, Nafarroako Autokarabana Elkarteak, urteko batzar nagusia Uharte Arakilen egin zuen eta horrek ere data zehaztera bultzatu zituen.

Zerbitzu eskaintza zabala daukate eremu berri honetan. Gau bat ala bi bertan lo egiteko aukera ematen zaio hamabost autokarabanei, argia, ur garbia hartzeko aukera baita urzikina botatzeko lekua, igerilekuetako dutxak dituzte besteak beste. Udari begira udalekuek instalazioak aprobetxatu dai-



Tximeleta autokarabana elkarteko eta udaleko ordezkariak elkarrekin mustutako gunean.

tezke eta baita mendiko kirolaz gozatzeko eskaintza zabala dago.

Ingurua errespetatzen duen turismo proiektu bat bultzatu nahi izan dute Uharte Arakilgo Udaltik. 2013-2014 urtean hasi ziren gune berri honen sorrerarekin,


udaletxeko zinegotzi batek proposatutakoa. Ideia landu eta gero, aukera aberasgarria ikusi zuten herriarendako.

30.000 euro inguruko inbertsioa egin dute eremu berri hau sortzeko. Europako Leader diru-lagun-

tza jaso zuten eta laguntza handia izan da Udalarendako. Oso balorazio positiboa egin dute Uharte-ko Udaletik, Ainara Aiestaran alkateak azaldu duenez, “gero eta jende gehiago gerturatzen ari da eta gu oso pozik gaude”.

C3 CITROËN BERRIA AS UNIQUE AS YOU ARE

ConnectedCAM Citroën™
personalizazioko 36 konbinaketa
Citroën Advanced Comfort®



CITROËNek nahiago TOTAL KONTSUMO MISTOA (L/100KM) / CO2 (G/KM) ISURIA : CITROËN C3: 3, 2-4, 7 / 83-109

facebook twitter linkedin youtube citroen.es

AUTO TALLERES SAN MIGUEL S.A. • ALTSASU • 948 562 261 • IRURTZUN • 948 600 657 • www.autsanmiguel.com

SAKANA

Inork ez du errebalidarik egin

LOMCE legeak ezarritako errebalidak egiteko eguna zuten asteartea Altsasu institutuan. Zehazki DBH4ko ikasleek. Batek berak ere ez du errebalida egin, Errebalidei planto asanbladak eskatutakoa betez. 100 bat ikasle institutuko sarreran gelditu dira, sartu gabe. Aurreneko ordutik protesta eserialdia egin dute. Haien kexua gehiago entzun zedin txirula joz aritu dira. Aurreneko ordukoa eta gero DBHko 4. mailakoak izan dira kalean gelditu eta protestan segitu dutenak. Patioan ere beste protesta bat egin dute. Atzo errebaliden kontrako manifestazioan 150 bat ikasle parte hartu zuten.

Errebalidei planto asanbladatik azaldu digutenez, "LOMCE



Ikasleek eserialdi batekin erantzun zioten errebalidari. INSTITUTUA

legeak inposatu dizkigun azterketak dira errebalidak. Aurtengoak ez dira ebaluagarriak izanen. Emaitzak ez dituzte ez ikasleek

ezta ikastetxeek jakinen, haiek bakarrik. Aurrera baldin badoaz, heldu diren urteetan errebalida aprobatazea beharrezkoa izanen

da ikasturtea edo DBH gainditzeko".

Guardia Civilak etena

Errebalidei planto zioen pankartarekin egin zuten manifestazioa ikasleek astelehenean. Ia udaletxe parera iritsi zirenean Guardia Civilaren patruila batekin topo egin zuten. Manifestazioa eten zuten, pankarta kendu zieten eta disolbatzeko agindu zuten. Ikasleak plazan batzarra egitekoak ziren baina ezin izan zuten egin Guardia Civilaren patruila agertu zelako. Asanbladatik "Guardia Civilaren presentzia itogarria" salatu zuten, gaineratuz, "ikaslea kikiltzea dute helburu. Guk argi dugu haien erasoan aurrean".

Etxarri Aranatz

Mariñelarena eta gaixo dauden presoak gogoan

Larunbatean, 19:00etan, Etxarri Aranazko plazan

Pello Mariñelarena Imaz Parisko La Sante kartzelan preso zegoela HIE-Sak jota hil zen 1993ko maiatzaren 15ean. Mediku arreta egokirik ez zuelajaso eta kartzelako osasun baldintza penagarriak zirela salatu zituzten orduan. Etxarriarraren heriotzaren 24. urteurrena dela antolatutako ekitaldian larriki gaixo dauden euskal presoan egoera nabarmendu nahi dute. Gaixoak artatzen dituen Jaiki Haidi elkarteko kide batek eta Kalera Kalera ekimeneko preso ohi batek parte hartuko dute ekitaldian.

SAKANA

Irurtzun

Euskeraren Jatorria elkarteak biltzarra eginen du



Aurretik Irurtzungo kultur etxean egindako beste batzar bat.

Euskera eta euskal sena gai hartuta ariko dira larunbatean, 9:30etatik aurrera kultur etxean

Gure hizkuntzaren jatorria zein den ez dakigu. Horri buruzko hainbat proposamen eta teoria daude. Eta hain zuen argibideak opatzeko horiek jaso, zabaldu eta eztabaida sustatzea du helburu Euskeraren Jatorria elkarteak. Euskararekin batera, beste hizkuntzei buruz dauden teoriak ere plazaratzen ditu elkarteak, hizkuntzen arteko harremanak hobeto ezagutzeko, iberiera besteak beste. Euskararen jatorriari buruzko gune parte hartzaile bat eratu nahi du elkarteak, zeinetan teoriak begirunez eztabaidatzen diren.

Elkarteak urteroko biltzarra Irurtzunen egitea erabaki du. 11. aldian izanen da Euskeraren Jato-

ria elkarteak biltzarra eginen duena. Azken urteetan bezala gai baten inguruan arituko dira biltzarrean: euskera eta euskal sena. "Euskarak euskaldunoi ematen digun nortasuna, hau da, hizkuntzaren bidez zein mundu ikuskerara garatzen eta osatzen dugun, hizkuntzaren bidez nola azaltzen garen mundu honetara". Zortzi hizlariren aurkezpenak, mahai ingurua eta Artetako museora bisita dira egitarauaren ardatza. +www.guaixe.eus

Informazioa

www.euskararenjatorria.net.
Eta izena emateko: euskera-
renjatorria@gmail.com.

Altsasu

Batukada feministetako kideen topaketa asteburuan



Batukada doinuak kolpe feministarekin. SARETIK

Hainbat batukadetako kideak aterpean ikasten ariko dira. Larunbatean, 19:30ean, ikasitakoa kalejira batean erakutsiko dute

Euskal Herriko IV. batukada feminista topaketak hartuko ditu asteburuan Altsasus. Antolakuntzan aritzen Ainarak azaldu digunez, "gero eta batukada feministak gehiago daude". Gipuzkoan dago mugimendu handiena eta Bizkaian zerbait. Bera 10 herritan ari da klase ematen. Haiek tokiko batzuk dagoeneko autonomoki funtzionatzen hasiak dira. Batukada feminista horietako kideei zuzenduta dago asteburuko topaketa, "elkar ezagutzeko eta ongi pasa-

tzeko". 80 batek eman dute izena. "Urtetik urtera gero eta gehiagok ematen dute izena".

Batukada erritmoak jotzen dituen taldea izateaz aparte "feminismoa erlantz duen emakume taldeak dira" batukada feministak. Perkusio erritmoak "ahalduntzeko erabiltzen ditugu. Musika kalea okupatzeko, gure espazioa hartzeko". Era berean, entseguetan ez dira bakarrik musika tresnekin aritzen: "gure emozioez hitz egiten dugu edota lotsa gainditzeko, autoexigentzia eta gauza pila bat lantzeko dinamika egiten ditugu". +www.guaixe.eus

Kalera-Kalera dinamikak Saint Mur espetxera martxa antolatu du

Kalera-Kalera dinamikaren baitan, sei espetxetara martxa antolatu du Kalera Kalera dinamika: Frantziako Fleury Merogis, Saint Maur eta Roanne espetxetara eta Espainiako Puerto de Santa Maria, Curtis eta Picasent espetxetara. Sakanatik Saint Maurreko espetxera abiatuko da autobusa. Hartan Juan Kutx Maiza etxarriarra dago preso. Kartzelaren ondoan larunbat eguerdian eginen da ekitaldia. Izena eman nahi dutenek ohiko tokietan eman dezaketeko izena.

Erabakitzena

doaz

Bost aste falta dira garagarriaren 18rako, zazpi herritan galdeketa eginen dira Gure Esku Dagok antolatuta. Parte hartzen animatzeko ostiralean Erabaki festa antolatu zen Lakuntzan. Urdaingo Gure Esku Dagok hilaren 20rako egun osoko egitaraua antolatu du, herri bazkaria barne. Hartarako txartelak herriko tabernetan eskuratu daitezke.

Ostiraleko SAIOA
9:30ean

Errepikapenak: 14:00 - 19:00

Astelehenetik ostegunera
Metropoli forala
9:00etatik 11:00etara

Esataria: Eneida

Gaurko gaiak:

- Urdaingo historia memoria ekitaldia
- Irantzu Garcia ilustratzailea
- Burundako euskalkia sustatzeko hitzarmena



maiatzaren 13, larunbatean,
zuzenean, 18:00ean
Osasuna - Granada

107.3 FM
beleixe
www.guaixe.eus-en ON LINE

40 tanatorios IRACHE

aniversario

Tanatorioak: Altsasu – Irurtzun – Lekunberri – Betelu – Leitza

“Betidanik”

948 19 70 70
@Grupolrache
Grupolrache
www.tanatoriosirache.es

Martin Senar Andueza

I. urteurrena

Zuk ereindako maitasun
hazia, gurekin da.

Bere aldeko meza, Lizarragan, igandean 13:15ean.

Zure emaztea eta alabak



Puri Petriati Goñi

Gure ondotik joan zara,
baina gure bihotzean
egongo zara beti.

Arbizun, 2017ko maiatzaren 3an



Angel Iriarte Goikoetxea



(Raquel Iriarte, Txioika Haur Ikastolako langilearen aita)

Urak dakarrena urak daroa,
zuk emandakoa
gurekin gelditzen da.

Bilakatu zen bizigai...



Eskertzak eta eskelak osteguneko
goizeko 11:00ak arte jasotzen ditugu.

**Bidali mezua eskelak@guaixe.eus-era
edo hots egin 948 564 275 telefonora**

**Marmoles
San Miguel**

Hilariak
Kolunbarioak
Gurutzeak
Estelak
Hilobiak
Panteoiak
Inskripzioak
Grabatuak
Panteoien zaharberitze
eta garbiketa

948 260 098 - 883 136 423

Oroigarriak egiten ditugu



gk
KOMUNIKAZIOA

948 564 275
Foru plaza, 23-1 Altsasu
gk@gkomunikazioa.eus

guaixe.iragarkilaburrak.com

NORBANAKOEN IRAGARKIAK

Webgunean: guaixe.iragarkilaburrak.com-en **doan**
Guaixe astekarian: Saldu/erosi, erretan eman/ hartu,
lan eskaintzak 8 euro / 3 aste

HARREMANETARAKO

Telefonoa: 948-56 42 75
Posta elektronikoa: iragarki@guaixe.eus

HIGIEZINAK

ETXEBIZITZAK EROSI

Etxea edo borda birgaitzeko eta lur-
sailarekin erosi nahi dut. Tel 652 06
40 43.

LANA | NEGOZIOAK

LAN ESKAINTZAK

Arbizuko KARRIKA tabernan zerbitza-
ri euskaldun bat behar da asteburu-
tan lan egiteko. Tel 948 462 137

Zerbitzaria behar da Altsasuko
Dantzaleku tabernan udan lanean
aritzeko. Deitu 626 360 759ra

Landa hoteleko langilea. Jatetxe eta
harrerarako neska bat behar dugu ostiral,
larunbata eta igandeetarako (ez finkoak).
Euskalduna eta ingelera jakitea beharrez-
koak. Hoteleko harreraren esperientzia izatea

ez da beharrezkoa. Arratsaldeko lanaldia
betetzeko beharko genuke, baina malguta-
suna eskatzen dugu. Urritiko baxara, lan
egunetan hotelean gelditzeko aukera ere
eskainiko da. Bidali zure Curriculum naia-
ra@hotelolatzea.com

**Urdiaingo igerilekuetan soroslea
behar da.** Lan horietan aritzeko sorosle
titulua, D.E.S.A. ziurtagiria behar da.
Interesatuak maiatzak 25a baino lehen,
aitziberelekarte@gmail.com-era bidali CV.

IKASTAROKAK

Excel. Altsasun, dohain. 20 ordu. Erdi
maila. Lehentasuna langileek izanen dute.
Maiatzaren 22tik 31ra, 17:00-19:30. Izen-
ematea www.tiss.es edo 948 23 53 99.

CC. Digitala eta sare sozialak.

Altsasun, dohain. 20 ordu. Lehentasuna
langileek izanen dute. Ekainaren 1etik 8ra,

16:30-20:00. Izen-ematea www.tiss.es
edo 948 23 53 99.

IBILGAILUAK

SALDU

Deuchfar traktorra. Bigarren eskuko,
atoi eta lurra lantzeko makineriarekin sal-
tzen da. Tel 948 57 63 84.

SALDU

Arko izozkailua salgai. Luzera 1,5
metro, oso gutxi erabili dugu eta oso egoe-
ra olean da. Tel 618 096 204.

OPATUTAKOAK / GALDUTAKOAK

**Altsasuko Udaltzaingoak Altsasun
galdutako gauza hauek ditu:** diru-
zorroak, poltsak eta nezeserrak: 31.
Audifonoa: 1. Betaurrekoak eta betaurreko-

zorroak: 42. Euritakoak eta mikilak: 19.
Belatitakoak, kateak, eskumuturrekoak,
eraztunak, erlojuak eta imitaziozko bitxiak:
31. Arropak eta oinetakoak: 48. Bizikletak
eta patinak: 10. Beste objektu batzuk: 8.
Etxeko giltzak eta ibilgailuak.

Betaurreko progresiboak galdutakoak. Unanu eta Beriain mendiaren
arte. Funda beltz batean sartuta zeu-
den. Tel 626 56 24 41.

OHARRAK

Otaiko ermitaren alde. Eraikina kon-
pontzeko diru biketa egiten ari dira.
Ekarpenak parrokiaren edo herriko banku eta
kutxetan zabalduko kontuetan sartu dai-
tezke.

Odol-emeleak. Altsasu: maiatzaren
16an, 17an eta 18an, 17:00-20:30, eta

19an 9:30-13:00.

Literatura irteera. Garagarrilaren 4an,
igandean, Zugarramurdira joateko txangoa
eta bazkaria antolatu du Arkatz liburu-den-
dak. Ibon Martin idazlearekin batera El últi-
mo akelarre liburuko parajeak ezagutzeko
aukera izanen da. Altsasuko liburu-dendan
eman behar da izena. 30 €.

Bakaikuko Gure Esku Dago. Argazki
erakusketan prestatzen ari da. Giza katetik
Bakaikuko herri galdeketera bitartean egin-
dakoen argazkirik dutenek bakaikuko@gure-
eskudago.eus-e postara edo 634 451 040
telefonora bidaltzeko eskatu du.

Urdiaingo Gure Esku Dago.
Maiatzaren 20an bere eguna ospatuko du
eta herri bazkaria antolatuta dago. Gure
Esku Dagok antolatutako bazkaria joan
nahi dutenek Kaluxa edo Mareo tabernetan
eskuratu ditzakete txartelak.

**Enplegarritasuna hobetzeko biter-
karitza eta aholkularitza zerbitzua.**
Sakanako Enpresariaren Elkarteak langabeei
eta lan bila dabilzanendako duen aholkula-
ritza zerbitzua da. Harremanetarako, 948
468 307 telefonoa.

Auzolana Josefina Arregui klinikan.
Parte hartu nahi dutenek 948 56 38 50
(klinika) edo 689 03 51 02 (Patxi) telefo-
noetara hots egin dezatela

**Josefina Arregui klinikako bazkidea
izan nahi baduzu,** urtean 12 € edo nahi
duzun kopurua eman dezakezu.
Informazioa: [amigosjosefinaarreguilagu-
nak@gmail.com](mailto:amigosjosefinaarreguilagu-
nak@gmail.com) edo [amigosjosefinaarreguilagu-
nak.blogspot.com](http://amigosjosefinaarreguilagu-
nak.blogspot.com).

JAIOTZAK

• **Arhane Gabirondo Sobredo,**
maiatzaren 3an Altsasun.

EZKONTZAK

• **David Alonso Gomez eta
Batirtze Nuñez Diaz de Tuesta,**
maiatzaren 4an Iturmendin.
• **Eduard Casanovas Berges eta
Ainara Alegre Navarro,** maiatzaren
6an Irurtzunen.

HERIOTZAK

• **Jose Ignazio Reparaz Lizarraga,**
apirilaren 29an Lizarragabangoan.
• **Purificación Petriati Goñi,**
maiatzaren 3an Arbizun.
• **Miguel Ignacio Oraá
Bengoetxea,** maiatzaren 4an
Altsasun.

Informazio hau epaitegietan eta udaletan
jasotzen da. Agertu nahi ez duenak, han
jakinarazi dezala.

MENDIA:

LIZARRUSTI-LARRAIZ, SAKANAKO MENDIZALEEKIN: Maiatzaren 21ean Sakanako Mendizaleak taldeak Lizarrusti-Larraitz ibi-

laldia antolatu du, 7:00etan abiatuta. Autobusean izena emateko epea zabalik dago ohiko tokietan edo 639 117 631 telefonon.

kirola >>

Areto futbol

Ametsa airean

Errege Kopako finala galdu egin zuen Magna Gurpeak, polemika tarteko, El Pozoren kontra (2 eta 3). Gaur, ligako titulua erabakitzeko play-offetan, Jaen izango du aurkari, Iruñean

Talde ahaltsuen kontrako partida erabakigarrietan gertatu ohi zaion bezala, arbitroen erabakiek ez zioten mesederik egin Magna Gurpea Xotari. Errege Kopa lortzeko zorian egon zen Imanol Arregiren taldea, 2 eta 0 aurreratu baitziren berdeak Dani Saldise irurtzundarrari eta Eric Marteli esker; baina azken minutuetan eta arbitroen erabaki polemikoak tarteko, 2 eta 3 irabaztea lortu zuen El Pozo Murciak. Magna Gurpeakoek, jota, triste eta koptilun, domina jasotzearekin konformatu behar izan zuten, baina sari

Play-offetan, gaur Jaen aurkari



Asteburuan hasten dira lehen mailako liga titulua erabakitzeko play-offak. Ligan lehen 8 postuetan sailkatutako taldeak lehiatuko dira, Magna Gurpea tarteko. Irurtzungo taldeak play-offetako final laurdenetan Jaen Paraiso Interior izango du aurkari. Lehen partida gaur jokatuko da, 20:30ean, Iruñeko Anaitasuna pabilioian. Xotak kluba laguntzeko eguna zehaztu du partida. Errege Kopako finalean bezala, zaleen babesa espero dute berdeek.

bereziena jaso zuten: Guadalajaran bildutako zale gehienen babesa, animoak eta txaloak. Euren eskaini zieten txapelkunordeko trofeoa.

Imanol Arregiren taldeak marea berdea izan zuen alde, 1.300 zale inguru bildu baitziren euren

aldeko harmailetan, tartean Irurtzundik ateratako autobusa.

Lehen zatian bikain aritu ziren berdeak. 2 eta 0 aurreratu ziren. Baina arbitroak oso zorrotz jokatu zuen Magnarekin: euren kontrako penalty bikoitza ekarri zuen era-

baki horrek. Atsedenaldira baino lehen 2 eta 1 gerturatu zen El Pozo Murcia eta 2. zatiko bukaeran, berdintzea eta azken minutuetan garai-penaren gola sartzea lortu zuen.

Imanol Arregi: "penalti lotsagarria seinaleztatu digute"

Entrenatzailea arbitroen lanarekin haserre azaldu zen. "Lehen zatian nagusi izan gara, utzi digutenera arte. Gure kontra ezin zuten, penalti bikotza seinaleztatu digute, penalti lotsagarria, existitzen ez zena. Bigarren zatian bi defentsa despiste izan ditugu, finala galtzea ekarri digutenak. Taldeaz harro nago eta altxatzea, ez dugu besterik, ligako titulua erabakitzeko play-offak jokoa ditugulako" gaineratu zuen. "Jota gaude, baina taldekideez eta gure zale bikainez harro nago" adierazi zuen Roberto Martil jokalaririk irurtzundarrak.

Pilota

XXV. Irurtzungo Pilota Txapelketa, Labriter

Gaur, ostiralean, 18:45ean

Irurtzun Txapelketako asteburu honetako jardunaldia Iruñeko Labrit pilotalekuak hartuko du. Migeltxo Berazak adierazi digunez, Nafarroako Pilota Federazioak ostiraletan partidak antolatzen ditu Labriten, eta Irurtzungo aste honetako jardunaldi bertan txertatzea ongi iruditu zaie.

Irurtzun Pilota Txapelketa

Gaur, 18:45ean, Labriten:

Etxeberria-Peñas / Olazabal-Eulate

Olano-Perez / Zubizarreta-Garmendia

Pilota

Altsasuk baditu txapeldunak



III. Bikotekako Pilota Goxua Txapelketako finalean Alegria-Gartziandia, Aiestaran-Beloki eta Lopez de Zubiria-Gartziandia izan ziren txapeldunak

Altsasuko Alde Zaharren festetako jai giro bikainean, Altsasuko Gazte Asanbladak Pilotajauku klubaren laguntzarekin antolatutako III. Bikotekako Pilota Goxua Txapelketako final handiak jokatu ziren. Giro ederra izan zen finalean, trikitixa lagun, eta pilo-

III. Bikotekako Pilota Goxua Txapelketako finalak

3. maila: Galarza-Mintegi 14 / Alegria-Gartziandia 18

2. maila: Gereñu-Tuero 9 / Aiestaran-Beloki 18

1. maila: Senar-Alustiza 14 / Lopez de Zubiria-Gartziandia 18

ta zaleek apustuak egiteko aukera izan zuten. Sari banaketarekin despeditu zen txapelketa arrakastasua.

Bakaikoak.

Larunbatean Tolosan jokatutako promozio Buruz Buruko finalerdian, Joanes Bakaikoak Gorka izan zuen aurkari. Etxarriarrak sufritzen jakin zuen, Gorkaren erasoei eutsi zien eta pilota alde izan zuenean piloteoa dominatu, azkenean, 14 eta 22 irabazi zion Gorkari eta profesionaletan soilik 4 hilabete eman ondoren, bere lehen finala jokatuko du, beste finalerdietan Peña II. ari 22 eta 16 irabazi zion Axier Arteagaren kontra. Finala maiatzaren 20an jokatuko da, Labriten.

Bakaikoa, finalera

Etxarriarrak maiatzaren 20an jokatuko du finala, Labriten, Arteaga II.aren kontra

Veni, vidi, vici. Euskaraz, etorri, ikusi eta garaitu. Joanes Bakaikoa pilotari etxarriarrak aurtan debutatu zuen Asegarcerekin, ilbeltzaren 14an, promozio Binakako Txapelketan, Ondoren, promozio Buruz Buruko iritsi zen eta hor beste maila bat gora egin du

>>

Sakanako Udako Pilota Txapelketa abian

Larunbatean eta igandean lehen jardunaldia jokatuko da, 10:00etatik aurrera, Olaztik pilotalekuan

Olaztik Sutegei klubak, Sakanako pilota eskolen, Sakanako Mankomunitatearen eta Nafarroako Pilota Federazioaren laguntzarekin Sakanako Udako Pilota Txapelketa antolatu du.

Txapelketa berria da, baina orain arte Olaztin, San Migel txapelketarekin batera Sutegei antolatzen zuen txapelketa horren lekukoa hartuko du. 120 pilotari lehiatuko dira, gehienak sakan-darrak. Aurten Olaztin eta Zor-dian jokatuko da, baina hurrengo urteetan Sakanako beste herrietan, errotazioz.

San Migel txapelketa, abian

Olaztik San Migel elkarrekin urtero pilota txapelketa antolatzen du. Aurtengoa XLVI. edizioa izango da eta asteburuan hasiko da.

San Migel. 1. jardunaldia

Ostiralean, 20:30ean:

3. maila: Luzurika-Muñoz / Ion-Imanol

2. maila: Gelbentzu anaiak / Bengoetxea-Urrizola

1. maila: Lopez de Zubiria-Gartziandia / Zelaia-Grados

Larunbatean, 17:00etan:

3. maila: Peito-Ondatz / Ilegi anaiak

2. maila: Flores-Martinez / Lizarraga-Azurmendi

1. maila: Beloki-Aies / Iñigo-Eñaut

Sakanako Udako Pilota Txapelketa. 1. jardunaldia

Larunbatean, 10:00etan, Olaztin: Aurrebenjaminak: Arguelles-Sarazibar (Sutegei) / Urteaga-Zelaia (Urdiain)

Umeak 1: Reparaz-Reparaz (Aldabide) / Ulaiar-Igoa (Pilotajauku) Kimuak 1: Gerrikagoitia-Lizarraga (Aldabide) / Rekalde-Apao-laza (Lakuntza) Haurrak 1: Gainzarain-Urbe (Aldabide) / Arraiza-Añazko (Lakuntza) Kadeteak: Araña-Gonzalez (Gure Pilota) / Lopez de Zubiria-Araña (Gure Pilota)

Igandean, 10:00etan, Olaztin: Umeak A: Miteku-Enaitz (Gure Pilota) / Ganboa-Zabala (Lakuntza) Kimuak 1: Leiza-Lopez (Aldabide) / Mitxelena-Gasko (Pilotajauku)

Kimuak A: Imaz-Lakuntza (Aldabide) / Arratibel-Nabarro (Gure Pilota)

Haurrak 1: Peral-San Roman (Pilotajauku) / Ulaiar-Agirretxe (Pilotajauku)

Haurrak A: Erdozia-Lizarraga (Aldabide) / Etxeberria-Lopez (Lizarraga)

Kadeteak: Berekoetxea-Berastegi (Irurtzun) / Senar-Ganboa (Oberena)



Martijaren aukera

Aspek atzelari garrantzitsuen taldean sartu nahi du Etxeberrikoa. Gaur, Zaldibarren, Altuna III. arekin jokatuko du, Ezkurdia eta Zabaletaren kontra

Barriolaren erretiroak hutsune handia utzi du Aspen. Horri Zubietaren baja luzea gehitu behar zaio, etxarriarrak belaunean dituen arazoak ez baititu gainditzen. Aspen atzelari garrantzitsu hauen bajak estaltzeko aukerak aztertzen ari dira, eta Julen Martija da aukeratu etako bat. Horrela, Aspek Martija puntako pilotariekin batera programatu du gaur, ostiralean, 21:30ean Zaldibarren duen jaialdirako (ETB1). Martijak Altuna III. arekin osatuko du bikoia eta Joseba Ezkurdia arbizuarra eta Etxeberrikoaren lagun mina eta erreferentea den Jose Javier Zabaleta etxarrendarra izango ditu aurkari.

Disko jaurtiketa

June Kintana, bigarrena Espainiako Unibertsitateetakoan

Espainiako Unibertsitateen arteko Atletismo Txapelketa jokatuko da, Cartagenan. Emakumezkoen disko txapelketan June Kintana bakaikoarrak (Leongo Unibertsitatea) zilarrezko domina jantzi zuen (49.76 m), Paula Ferrandiz (Alacanteko unibertsitatea) txapelkunaren (53.22 m) atzetik sailkatu eta gero.



Mendia

Sakanako orientazio proba, gaur

Gaur, 10:00etan, Arbizuko basoan. 163 ikaslek hartuko dute parte

Sakanako ikastetxeek eta Aguraingo ikastetxeak antolatuta, Sakanako Mankomunitatearen laguntzarekin, gaur Sakanako orientazio proba jokatu da, goizeko 10:00etatik aurrera, Arbizuko basoan, Zubaat eta Sandindegi aldean.

Altsasuko Institutuko 67 ikaslek, Aguraingo institutuko 49 ikaslek, Altsasuko Iñigo Aritzak ikastolako 25 ikaslek eta Etxarri Aranazko Andra Mari ikastolako 22 ikaslek hartuko dute parte, guztira 163 ikaslek. Jarduera DBHko 4. mailako ikasleei zuzenduta dago, baina ikastolen kasuan 3. mailakoek hartuko dute parte.

Kiroldegia

Irurtzungo Kirol Jardunaldien azken txanpa

Irurtzungo Kirol Jardunaldiak igandean despidituko dira. Gaur "Pilotariak" eta "Sakanako Ibilaldia" proiektioakeskainiko dituzte eta bihar bizikleta irteera eta Irurtzungo taldeen arteko herri kirolak izanen dira.

Irurtzun 2017 Kirol Jardunaldiak. Egitaraua:

Maiatzak 12, ostirala, 20:00etan, Kultur Etxean:

Dokumentala: "Pilotariak". Ondoren solasaldia Daniel Burgi Eguzkiza eta Andres Salaberri, dokumentaleko zuzendariekin eta Palako Munduko txapeldunaren Maite Ruiz de Larra mendia pilotariarekin. Segidan, 2017ko Sakanako Ibilaldien proiektioa.

Maiatzak 13, larunbata

11:00etan, Foruen plazan: "Bizikleta irteera Irurtzungo inguruetan". 14 km-ko ibilbidea: Irurtzun-Izurdia-Ga-Urritzola-Ekai-Zuhatzu-Satrustegi-Itxasperri-Irurtzun (www.relive.cc7view/890083804)

18:00etan, Foruen plazan: Herri Kirolak, mistoa, Irurtzungo taldeen artean: Gazte Asanblada, Larrazpi, Piku-xar, Erga Larreak, Guan, Bajerak...

Enduro

Marcos Beraza garaile Oibarren

Igandean I. Aibar Enduroa jokatu zen, Nafarroako Txapelketarako baliagarria. 70 pilotuk baino gehiagok hartu zuten parte eta irabazlea Marcos Beraza Vitoria irintarra izan zen (14:53).



Saskibaloia

CBASK, Final Fourrean

Seniorreko 1. maila autonomikoko titulua erabakitzeke Final Fourrerako sailkatu dira CBASK-eko mutilak. Oberena izango dute aurkari larunbatean, 19:00etan, Iruñean

Denboraldi bikaina egin du gizonen senior mailako 1. maila autonomikoan dabilen CBASK (Club Baloncesto Altsasu Saskiba-

loi Kluba) taldeak. Txapelketan laugarrenak sailkatu dira altsasuarrak, Megacalzado Ardoi, Escaleras Aguerri eta Oberenaren atzetik. Orain, aipatu lau talde hauek ligako titulua erabakitzeke Final Fourrean jokatu dute.

Final Fourrean, Oberenaren

Senior mailako CBASK 2016/2017



Jokalariak: Ander Hormeño, Ander Gabirondo, Julen Mendia, Jorge Herrero, Imanol Puer-ta, Aitor Calleiras, Jorge Misiego, Patxi Calleiras, Jon Otermin, Iñaki Herrero, Josu Mendiola, Pello Iraola eta Unai Flores. **Entrenatzailea:** Fermin Herrero. **Ordezkarria:** Eneko Casteig.

Futbola

Sakanako Futbol Topaketetako benjaminen 10. eta azken jardunaldia jokatu zen igandean Ziordian

Mank-ek antolatutako benjaminen mailako Sakanako Futbol Topaketak igandean despidituko ziren. Ziordian jokatu zen 10. eta azken jardunaldia. Aipatu topaketetan Urdiain, Txartel, Sutegi, Seguros Sayas, Lagun Artea 1, Etxarri Aranatz, Immerplast eta Lagun Artea A taldeak lehiatu dira. Ikasturtean zehar, areto futbola eta futbola tartekatuta dituzte, eta Bakaikun, Irurtzunen, Lakuntzan, Urdiainen, Uhartarakilen,

Atletismoa

IV. Ziordiko lasterketa solidariorako izena ematea zabalik

Maiatzaren 20an jokatu da, 17:00etatik aurrera

Ziordiko Running taldeak antolatuta, maiatzaren 20an IV. Ziordiko lasterketa solidariora jokatu da. Izen ematearen truke elikagai jasoko dituzte, Paris 365 jantoki sozialerako bideratzeko. Kategoriatxikiko neska-mutilek gutxienez 2 kilo elikagai eraman beharko dituzte eta helduek gutxienez 3 elikagai kilo. Paris 365tik adierazi dietenez, bereziki kontserbak, olio eta gosarirako jakiak dira behar dituztenak, mermeladak, zerealak, Cola Cao, galletak eta halakoak.

IZENA EMATEKO

Aurretik, www.dantzalekusakana.com web gunean, maiatzaren 19ra arte. Bestela, egunean bertan, Ziordian.

Benjaminek topaketei agur



Arbizun, Etxarri Aranatz, Altsasun eta Ziordian aritu dira.

Kimuen mailako topaketak

Agurain vs CBASK igandean Ziordian

Igandean, 11:00etan: Ziordiko Udalak antolatuta, igandean goizean, gizonen aurreminibasket mailan, Aguraingo Saskibaloitaldeak izango du aurkari CBASK Altsasu saskibaloitaldeak.

kontra ariko da CBASK larunbatean, 19:00etan, Oberenako instalazioetan. Beste partidaren, Escaleras Aguerri Megacalzado Ardoi izango du aurkari. Igandean, 3. eta 4. postua zehazteko partida 17:00etan hasiko da, eta final handia, aldiz, 19:00etan. "CBASK animatzera joateko deia egiten dugu, taldeak animoa behar du eta" adierazi dute Altsasuko klubetik.

Gogo handiz

CBASK taldeak behetik gora egin du ligan. "Taldea gaztea da eta Final Fourra jokatzeko ilusioz gainezka daude. Oberenaren kontra aritzea erronka moduan hartzen dute, talde onenatarikoa baita. Partida konplikatu dute aurretik, baina gogo handiz daude" diote CBASK-en.

Mendi lasterketak

Katarain bigarrena izazpin

Mikel Iriartek eta Alatz Agirrek lan ona egin zuten Elomendi Xtremen

Asteburuan lan bikaina egin dute gure korrikalariak.

Sakandarrak Izazpiko igoeran

1. Aritz Egea (Ezkio)	31:44
2. Beñat Katarain (Lak)	35:44

Sakandarrak Elomendi Xtremen

Maratoi erdia (21 km)	
1. Iñaki Mihura (Arraioz)	1:46:18
10. Mikel Iriarte (Arb)	1:58:11
22. Iker Flores (Alts)	2:01:53
146. Erkuden San Martin (Etx)	2:35:53

Laburra

1. Josu Galvez (Eskoriatza)	48:55
5. Alatz Agirre (Arb)	51:50
37. Hodei Lakuntza (Etx)	1:08:07
38. Victor Isturiz (Irur)	1:08:43
40. Koldo Isturiz (Irur)	1:09:22

Sakandarrak II. Segura-Zerain Traillean (25 km)

1. Aritz Kortabarria (Arrasate)	2:05:34
27. Juanjo Goikoetxea (Uhar)	2:28:39

Futbola

I. Ziordiko Futbol Txapelketa

Asteburuan I. Ziordiko Futbol Txapelketako 2. jardunaldia jokatu da Ziordiko txipudiko futbol zelaian.



I. Ziordiko Futbol 5 Txapelketa: 2. jardunaldia

Ostiralean, 20:00etan: Dia Ibaia - Ingenierias Iradi
Larunbatean, 16:00etan: Los Suaves - Auzomotojorik
Igandean: 12:00etan: Ziordia - Leones del Atlas
13:00etan: Futsal Sakana - Aralar Mendi

Futbola

FEDERATUTAKO TXAPELKETA

PREFERENTE MAILA. 1. multzoa

29. JARDUNALDIA

BURLADES 2 - LAGUN ARTEA 2
BERRIOZAR 1 - ETXARRI ARANATZ 0
Burlades aurreratu zen markagailuan. 2. zatian behera egin zuten etxekoek eta Anderrek bana berdindu zuen eta, beranduago, Ollok Lagunen bigarren gola sartu zuen. Partidako azken hatsetan, 94. minutuan, berdintzea lortu zuen Burladesek eta Lagun Artea 3. postuan, promozio postuetan sailkatzeko aukera galdu zuen. Bestalde, Berriozarrek 1 eta 0 irabazi zion Etxarri. Lehen zatian bi taldeek euren aukerak izan zituzten, baina Etxarriko Ibanez geldialdi bikainak egin zituen eta Etxarri ez zuen kontrako atean asmatu. 2. zatian, Berriozarrek etxarriarren atea zulatzea lortu zuen eta, nahiz eta Etxarri saiatu, markagailua ez zen mugitu. Asteburuan ligako azken jardunaldia jokatu da.

Sailkapena >>

1. Bidezarra	68 p
6. Lagun Artea	41 p
9. Etxarri Aranatz	36 p

Asteburuko jardunaldia, azkenekoa

LAGUN ARTEA - BERRIOZAR
(Igandean, 17:30ean, Lakuntzan)
ETXARRI ARANATZ - ARROTXAPEA
(Igandean, 17:00etan, Etxarri Aranatz)

ERREGIONAL MAILA. KOPA

ERREGIONALEKO KOPAKO FINAL LAURDENAK

CALATRAVA 1 - ALTSASU 2
Erregionaleko Kopako final laurdenetako joaneko partida jokatu zuen Altsasuk Calatravaren kontra, Fiteron. Hasieran serioago aritu ziren Erriberakoak eta markagailuan aurreratzea lortu zuten, baina 2. zatian aurrerago jokatzen hasi ziren gorritxoak eta lokin Lobok bana berdindu zuen. Partida bukatzean zegoela, garaiaren gola sartzea lortu zuen lokin Lobok. Larunbatean itzuliko partida jokatu da Altsasun.

Kopako final laurdenak (itzulerako partida)

ALTSASU - CALATRAVA
(Larunbatean, 17:00etan, Altsasun)

EMAKUMEZKOEN ERREGIONALA

26. JARDUNALDIA

IRUNTXIKI BERIAIN 1 - ALTSASU 3
Asteburuan jokatu zen emakumezkoen erregional mailako liga. Iruntxiki Beriaini irabaziz eta sailkapenean 12.a despidituz bukatu dute liga Altsasuko neskek. Euren lehen denboraldia izan da kategoria honetan eta erronkari ongi erantzun diete altsasuarrek

Sailkapena >>

1. Osasuna	70 p
12. Altsasu	22 p

ELOMENDIKO TXAPELKETA

27. JARDUNALDIA

ROKA 1 - ZALDUA 3

Sailkapena >>

1. Unziti	66 p
4. Zaldua	56 p

Asteburuko jardunaldia

ZALDUA - OROBIA
(Larunbatean, Lekunberrin)

Futbola

Sakanako Futbol Topaketak: kimuen 14. jardunaldia jokoan igandean

Sakanako Futbol Topaketak: kimuen 14. jardunaldia

Igandean, 10:00etan, Dantzalekun: Tipi Tapa - Sutegi
Igandean, 12:00etan, Lakuntzan: Lagun Artea - Urdiain
12:30ean, Etxarri Aranatz: Etxarri Aranatz - Kaixo

4 ETXARRIAR SOINU ZAHAR LEHIAKETAN:

Igandean, Legazpin, Soinu-Zahar txapelketaren finala jokatu da eta maila bakoitzean bina etxarriar lehiatuko dira. 7 eta 12 urte bitarteko mailan Maddi Beltza

eta Maddi Garmendia eta 13 eta 15 urte arteko mailan, berriz, Elai Gomez eta Naroa Otxoa.

Burundar Txistulariak, 10 urtez jo ta ke

Larunbatean, 20:00etan, Altsasuko Iortia kultur gunean. Gure Esku Dagoren abestiaren txistu, metal eta ahotserako kantuen moldaketa mustuko dute bihar

Burundar Txistulariak taldeak prestatu duen bosgarren kontzertua izanen da biharkoa. "Hasieran errazak ziren, baina orain ur handitan sartu gara: abeslariak, bateria, pianoa, bluesa, rock and rolla... Saltsan. Loporaino, baina osogustura". Juan Pablo Urizarrena da azalpena. Txistulariek hainbat kolaboratzaile izanen dituzte, oholtzan 30 bat musikari elkartuko dira.

"Une atsegin batez gozatu nahi duen edozein adineko publikoarentako da emanaldia". Euskal dantzak (Etorkizuna), dantza garaikidea (Dantzarima), kantua (Flores ahizpak), metal boskotea, bateria, baxua, txistu eta pianorako bi, rock and roll bukaera duen bluesa... "kontzertu anitza izanen da. Joan den mendeko 40ko hamarkadako musikatik aurrera daude errepertorioan". Horregatik, Urizarrek denetarikoa publiko espero du. "Askok errepikatzen dute". Eta, modu batera edo bestera, emanaldian Esther Irisarri zena presente egonen da.

10 urte

Urizarrek azaldu digunez, "sortzeko aitzakia tristea izan zen. Gure lagun, kide eta denetarikoa zen Estherri omenaldia egiteko elkar-tu ginen. Dagoen tokitik bulkada eman eta gidatzen gaitu". 12-14 bat



elkartu ziren eta entseatzeko segiteza erabaki zuten. Orduz geroztik batzuk joan dira, joan-etorria egin dutenak ere badaude, guraso izan dira batzuk, ikastera edo lanera kanpora joan dira... "entsegura etorri ezin direnak utzi dute. Baina jende berria sartu da eta kopuru berean mantentzen gara". Hasieratik Rafael Goñik, Patxi Goikoetxeak eta Urizarrek berak eusten diote.

Urizarrek nabarmendu duenez, "guztien dagoen zabalik dagoen

taldea da. Gurekin jotzera, gozatzera etorri nahi duenak atea zabalik du. Erritmo, kanta berriak, politak... Orain gozaten ari gara, taldeaz eta musikaz". Musika eskoletako ikasleendako eta txistua jotzen dakiten gaztetxoendako erreferentia izan nahiko luke Burundar Txistulariak. "Txistua ez dadila soilik eskolan jotzea izan. Eta kontserbatorioko jendea etorriko balitz, hobe, haiengandik ikasiko genuke ziurrenik".

+www.guaixe.eus

Egitaraua	Egilea
Pieza	Onraitia. Mold. Luis Aranburu
Eguzkia nora	Victor Zubizarreta
Rapsodia vasca	J. Etxeandia
Kale nagusitik	Raimundo Sarriegi
Minueto	Karlos Sanchez Ekiza
Burundarrak (fandangoa)	Karlos Sanchez Ekiza
Burundarrak (arin-arin)	Karlos Sanchez Ekiza
Durango blues	Herrikoia
Haize hegoa	Malcolm Arnold
Kwai ibai gaineko zubia	Pantxoa eta Peio. Mold. Karlos Sanchez Ekiza
Azken dantza hau	Uribe, Elorrieta eta Junkera. Mold. Karlos Sanchez Ekiza
Gure esku dago	Herrikoia/ Zelaia. Mold. Karlos Sanchez Ekiza
Momotxorren dantza	Pablo Sorozabal
Deba	

bazterretik

Juankar Mugartza

Iruña-Veleia, zoriontsuak ginen garaian

Mezu bat jaso nuen duela hamar bat urte nire tesiko zuzendari Henrike Knörren eskutik. 2006ko ekainaren 13a zen, asteartez, goizeko 09:31:59 orduan bidalita. Nire tesiaren aldezte-ekitaldiaren egunekoak eta bezperakoak aipatzen zituen eta ekainaren 21ean, asteazkenez, nire jarduna izanen zela esaten zuen.

Fakultatean egiten ari ziren lanak zirela eta, mezuak argitzen zuen ekitaldia ez zela han izango, beste erai-kin batean baizik, Gasteizko Koldo Mitxelena Liburutegian, hain zuzen ere. Gero, defentsaren ondoren, Armentiarra joatekoak ginen, baina azken egun haietako berriak ("berri

gutziz onak") entzun ondoren, Iruña-Veleiara joangintez keela pentsatu zuen nire maisuak. Gasteiztik 10 kilometrora. Beraz, aski zatekeen auto bat edo bi mugitzea. Arratsaldeko 5etan hasiko genuke bisitaldi hori. Mezuan adierazten zen bezala, bi minutu lehenago (09:29:59an) aztarnategiaren zuzendaria zen Eliseo Gil Zubillagarekin mintzatua zela eta berak adierazi zion bezala, ez zen inolako eragozpenik hara gerturatzeko. Euskal hitzak zituzten erromatarren garaiko pitxar puska edo "ostrakak" agertu ziren egun haietan Iruña-Veleian eta puska haien argazkiak erakutsi behar zizkigun, puska berak harrezkero Arkeologia Museoa baitziren giltzapean. Artikulu hau apaintzen duen argazkia arratsaldeko 17:30ean egin genuen. Ostrakak aurkitu ziren lekua



da. Ordu berean egindako beste argazki batean aztarnategiaren zuzendaria agertzen da hara joandako guztiokin, poz-ozik. Denak bezala. Beroa egiten zuen eta arratsaldeko eguzkiaren izpietatik saiatzen ginen geure buruak babesten aztarnategiko barrakoiaren (txa-

Dantza esperientzia Sant Cugat

Irantzu Gonzalez dantza eskola altsasuarreko bi taldek Sant Cugat del Vallesko koreografia lehiaketan parte hartu zuten igandean. Estreinakoa zuten halako lehiaketa batean. Irantzu Gonzalez irakasleak parte hartzeko proposamena egin zien eta ikasleak animatu egin ziren. Hark prestatutako koreografiak eskaini zituzten.

Bi talde aritu ziren. Gazteek euren taldeari Salilei izena eman zioten. Honakoek osatu zuten: Ane Hernandez Zubelzu, Eneritz Regil Fernandez, Leire Nuncio Lanza, Izarne Ibero Blazquez, Leire Zubikoa Barroso, Intza Iturriotz Fernandez eta Saioa Iraizotz Erbiti. Txikienek, berriz, Moon dancers izenarekin parte hartu zuten. Hain zuzen ere: Ane Iturriotz Salazar, Haizea San Roman Iparragirre, Nahia Lumbreras Ruth, Olaia Carabias Herrero, Josune Sanchez Amiama, Olaia Santano Azpeitia, Aurora Urabaien Otxoa Aizpurua eta Nora Pozueta Diaz.

+www.guaixe.eus



Nafarroako bertso baratzea



Irurtzunen 90 ikasle inguru bildu zituen Nafarroako Bertso Eskolen Eguna

Nafarroako makina bat eskualde-tako bertso eskoletako ikasleek topaleku bihurtu zen Irurtzun igandean. 14 bertso eskoletako ordezkariak izan ziren elkarrekin, tartean Altsasuko bertso eskolakosei. Prestatutako egun osoko egitarauan bertso-eskolek ikasleek arteko harremanak bultzatzeko eta elkar ezagutzeko sustatzeko aukera eskaini zen.

+www.guaixe.eus

Ogibideak dantza bihurtuta

Ostiralean, 20:00etan, Altsasuko Iortia kultur gunean

Halaxe emanen dituzte Etorkizuna dantza taldeko kideek Lanabesak ikuskizunean. Joan den mendeko hasierako bizimoduari erreparatu diote ikuskizuna ontzerrakoan. Sortu dituzten koreografiaren garai hartako lanabesak dira ezinbesteko elementua, zeinei gorputza eta mugimendua batu dizkieten. Orduko ofizioak dantza bihurtuak ikusteko aukera izanen da gaur, euskal dantzek eta, orokorrean, folkloreak lotura estua baitute. Gaur Iortian eskainiko duten ikuskizuna Etorkizunakoek Bartzelonako Tordera herrian apirilaren 22an mustu zuten. 20 dantzarien emanaldiak harrera beroa izan zuen.

Sakanako bandaren dantzagarriak

Igandean, 19:00etan, Olatzagutiko San Migel plazan

Haize Berriak bandak bere doinuekin lore eta landare azokaren 10. edizioko egitaraua itxiko du. Emanaldiak bi zati izanen ditu. Aurrenekoan, banda Arrasateko gaitariekin arituko da *La dominguera*, *Mexikoko poupurria*, *Lau eper teilatuan* (fusio reagea) eta *Malamartxa* piezak jotzen. Azken pieza biribilketa hori Haize Berriak bandak Juanjo Amezarainen oroimenez eskatutako pieza da. Kontzertuaren bigarren zatia bestelako erritmoekin osatuko da: Supertramp, Santana edota Nino Bravoren doinuak jokatu bandak.

Sakanako gaztagileak



ALBI GAZTAK

Arruazun hiru Ganboatarrak orain dela 7 urte ustategia zabaldu zuten. Illarran Albin eta Mugardin, Aralarren, izaten dute artaldea. Ekosisteman gure kulturaz osatutako bioaznitasun aberatsa: ardi latxa eta gazta dira beraien hiru zutabeak. Idiazabal jatorriduna, gazta urdina eta beste mota batzuetako gaztak lantzen dituzte. Jendarferatu nahi dutena artzaintza mota hau da, gure hizkuntzarekin eta kulturarekin, eta amalurarekin lotura duena. Ekonomia zirkular xumea, burujabetza eta giza-artearekin konprometitua dagoena.



BERIAIN GAZTAK

Aitak orain dela 35 urte zabalduz bidea jarraitzen dute Isabel eta Jesus Balda Mercero anai-arrebek Unanun. Betidanik ezagutu dute gazten mundua. Ardiak Andian eta Beriainen magaletan izaten dituzte. Hasi zirenean, oraindik artzaintza gaizki ikusitako lanbidea zen, gazteen artean aitzindari bihurtu ziren. Gaur egun gogotsu dabilta lanean.



EZKURRA GAZTAK

Izurdiagako Javier Ezkurrak orain dela 30 urte ekin zion gazta egiteari. Ardiak inguruko larreetan bazkatzen dute. Hiru aldiz irabazi ditu *Cheese awards* sariak, 2010, 2012 eta 2016ean eta hainbat aldiz geratu da bigarren, betiko gazta eta gazta ketuarekin. Bere sekretua konstantetasuna eta garbitasuna dira.



JEINGENEOA ESNEKIAK

Etxarri Aranazko Jeingenekoa etxea betidanik egon da lehen sektoreari lotua. Orain dela 12 urte, erronka berrieldu zieten. Larreak haiek ereiten dituzte, behiek belar hori jaten dute eta ematen duten esnearekin egiten dituzte produktu berriak. Komertzializatu eta banatzen dituzte, ziklo osoa etxean gelditzen delarik kalitatea bermatuz.



JUANNEKO GAZTA

Arbizuko Juanneko baserrian ardiak betidanik izan dituzte. 1992an, aitaren laguntzaz, Jose Manuel gazta egiten hasi zen, amarengandik ikasita. Jonerekin 2004ean sortu zuten nekazal elkarte zibila. Lan handia suposatzen duenez, etorkizun iluna du. Hurrengo belaunaldiak lanbide honetan bizimodu duina lortzeko bideak jorratzea da gaurko artzaien erronka.



LIZARRAGA GAZTAK

Lizarragako Txilibistonekoa etxean jaio zen Gertrudis Elso orain dela 81 urte. Txiki txikitik hasi zen sukalde hartan gaztak egiten gurasoekin. Pozik dago, sasoi onean, lanbide honetaz maitemindurik oraindik ere. Senarra faltan botazen badu ere, bere sekretua, beti bezala, garbitasun handia da gazta egiterakoan eta ardiak osasuntsu izatea. Gaur egun bere semeak ditu bidelagun.



TXILIBISTONEKOA GAZTAK

Xabier Garmendia Etxarri Aranazko Txilibistonekoa gazten IV belaunaldia da, Angel Garmendia aitunaren eta Pedro Mari Garmendia aitaren bidea jarraiki. Betidanik ezagutu dute lanbide hau eta oso gustoko dute. Urbasan dituzte ardiak eta txabola. Idiazabal Jatorrizko Izendapenean sartu berri dira.



Ikuskizunetik bizikidetzara

Larunbatean, 17:00etan eta 19:30ean, Lakuntzako kultur etxean

Txingurriye taldeak lakuntzarren arteko integrazioa du helburu. Horregatik hainbat arlotan ari da lanean: herritar berrienseme-alabei eskola-laguntza ematen, euskara irakasten, kultur artekotasuna sustatzeko jarduerak antolatzen... Baita ikuskizunen bidez ere. Txingurriye taldeko Emma Larretak azken urteetako esperientzia oinarri duela azaldu digu "antolatzen ditugun ikuskizunetan kalean agurtu ere ez litzatekeen jendea elkartzen dugu".

Gero eta gehiago dira Txingurriyeren ikuskizunetan parte hartu nahi dutenak. Joan den urtean 20 parte-hartzaile baziren, aurten 33 dira, 15 eta 50 urte ingurukoak. Gainera, askok errepikatzen dute. "Udazkenaz geroztik ikuskizunetan parte hartu nahi dut esanez etortzen zaizkit eta nikez dut inor kalean uzten. Nola edo hala moldatzen naiz denei paper bat emateko", azaldu digu Larretak. "Hori bai, behin sartuta, ez uzteko konpromisoa hartuta".

Prest

San Saastin festen aurretik egin zuten aurreneko bilera. "Udaleko bilkura gelan ez ginen sartzen".



Inork ez zekien zer proposatu zien Larretak eta "nahiko erotuta nengoela esan bazuten ere, festen ondoren entseatzeko hasi ziren". Elkarrekin entseatzeko aukerarik ez dutenez, taldetxotan aritu dira. "Astegun guztietan izan ditut entseguak" azaldu digu Larretak. Inor ez da profesionala. Igandean egin zuten entsegu orokorra eta dena prest dago. "Atzean lan handia dago".

Guztiek ere ederki gorde dute zer ari diren prestatzen, "baina publikoak ongi pasatzea espero dugu". Txingurriyekoak aurreratu digun bakarra da "formatu berri-tzailea" dela. Udan hasi zen *Ixilik*, *grabatzen gaude* izenburua duen

ikuskizunari bueltak ematen. Baina dagoeneko eskarmentua badute denek: joan den urtean *Gora ezkonberriak!* antzerkia izan zen. Duela bi, musikalei omenaldia. Aurreko bi urteetan plazan zerbait informalagoa egin zuten.

Oharrak

Bihar leihatilan 19:30erako sarreak besterik ez dira salduko. 17:00etarako emanaldirako nahi dituenak aurretik erosi beharko ditu. Antolatzaileek puntu altasuna eskatu dute. Behin atea itxita ezin izanen da inor sartu.

Lakuntzako lehiaketak sariak banatu ditu

Garabatosek diskoa grabatuko du, Embajadak kanta eta Alerta Gorria Hatortxu Rocken ariko da

Sakanako Pop-Rock Lehiaketako finaletan Lakuntzako kultur etxea bete egin zuen larunbatean. Eta zaleen aurrean onena ematen saiatu ziren hiru taldeak: Garabatos, Embajada eta Alerta Gorria. Hirurek zuten saria

egiteko grabazio 40 ordu izanen dituela Altsasuko Estudios Del Reynon, Ricardo Areta teknikariarekin. Embajada taldeak grabazioarako 8 ordu eskuratu ditu Josu Erbitiren Drum Groove estudioan (Iseoko bateria, Tximeleta ohia). Azkenik, Hatortxu Rock jaialdiko kartela itxita gelditu zen eta 85. taldea Alerta Gorria izanen da. Arbizuko taldeak dis-



ziurtatuta. Bakoitzarendako zein sari izanen zen zehazteko zegoen. Eta haietako batean, publikoak gainera, eragina zuen.

Epaimahai berezia izan zen larunbatean: Hatortxu Rock-eko, Biltoki gazte elkarteko eta musika arloko bina ordezkari. Baita publikoa ere. Denen artean erabaki zuten Garabatosek diskoa

ko grabaketa eta jaialdian parte hartzeko txartela irabazi zituen eta bien artean Hatortxu Rocken jotzea aukeratu zuen. Sari ematean Marea taldeko Piñas baxujolea izan zen. La Banda del jefe Bigun taldeak Atzaparroceko gaztetxoei aipamen saria eman zien. Taldeak, jaialdiak eta udalak antolatu dute.

Birziklatu zure ibilgailuaren hondakinak

Erabilitako olioak eta pneumatikoak berriz ere erabil daitezke

JOAN TAILER ERREGISTRATU BATERA*
Zure ibilgailua eta Ingurumena zaintzen ditugu

Kanpaina honen barnean egin da:

- Plan de Residuos de Navarra
- 2017-2027
- Nafarroako Hondakinen Plana

* Tailer erregistratuetan Industriaren plaka urdin bat dago; hortan, tallerra zertan dagoen espezializatuta eta erregistro-zenbakia ageri dira.

G

asteko >> : eguraldia

	ostirala	larunbata	igandea	astelehena	asteartea	asteazkena	osteguna
euria: 15%	euria: 10%	euria: 10%	euria: 10%	euria: 5%	euria: 10%	euria: 10%	euria: 10%
Min: 12 Max: 23	Min: 12 Max: 24	Min: 12 Max: 20	Min: 12 Max: 24	Min: 13 Max: 23	Min: 14 Max: 24	Min: 14 Max: 20	Min: 14 Max: 20

: temperatura >>

	Max. °C	Min. °C	euria l/m ²
Irurtzun	25	3.5	21.3
Etxarri A.	23.2	0.7	24.2
Altsasu	23	2.5	20.9
Aralar	16	2.8	17.6
Urbasa	-	-	-

: ilargiaren aldia >>

	ilbehera	ilberri	ilgora	ilbete
	19	25	1	9

EGOKI

VENTANAS PVC LEIHOAK

www.ventanasegoki.com

KALITATEA - AURREZKIA - EROSOTASUNA

egoki@ventanasegoki.com

948 563 253 Arkinoturri Industrialdea · Olazti ERAKUSKETA: Olite kalea 16 · Iruñea

Etxe pasiboetarako egokia

s 9000

Beirak lehorrean jarrita

Isolamendu nukleo indartsua

Aparteko azala koloreztatua

Bazkide zozketa

MAIATZEKO SARIAK:

1. SARIA:

Ekainberri: 2 sarrera
Artazako Kanpina: %10eko deskontua
Lacturale: esneki lotea
Gaztezulo: 3 hilabetez doan
Magna Gurpea: 2 sarrera
Aquarium: sarrera bat

2.,3. ETA 4. SARIA:

Artazako Kanpina: -%10
Lacturale: esneki lotea
Gaztezulo: 3 hilabetez doan
Magna Gurpea: 2 sarrera
Aquarium: sarrera bat

Ekain berri

>> 11 galdera

Abdelaziz Missaoui

Irurtzongo Arabiar Komunitateko presidentea

Testua: Larraitx Amadoz Lazkano



Eskola agendak 2017 2018

Irakasle koadernoak

Foru plaza, 23-1. Altsasu | 948 564 275 | 948 562 107
gk@gkomunikazioa.eus | www.gkomunikazioa.eus

1. Zergatik ospatu duzue Arabiar kulturaren Eguna Irurtzunen?
Gure kultura Irurtzungo herritarrengana hurbildu nahi dugu eta modu egokia iruditu zaigu egun hau ospatuz. Gure ohiturak, edota bizimodua erakusteko egun aproposa iruditu zaigu, izan ere, jende askok oraindik ez gaitu ezagutzen eta horrelako ekimenek asko laguntzen dute. Irurtzundarrak guregana gerturatzeko aukera paregabea da eta gure kultura hobeto ezagutzeko baita ere aldi berean.

2. Zer antolatu zenuten egun horretarako?
Denetarik prestatu genuen Arabiar Kulturaren Eguna ospatzeko. Gure kulturaren ohiturak, janariak, azken finean, gure tradizioaren erakusle diren hainbat gauza Irurtzungo plazan jarri genituen. Tea, pastelak, alfombra, denetik ikus zitekeen igande eguerdian Irurtzunen.

3. Nortzuk parte hartu duzue egun honen antolaketan?
Aurreko igandean jende asko gerturatu ginen plazara gure kultura erakusteko asmoarekin. Irurtzungo Arabiar komunitatean bost kide gaude, eta horietatik izan gara antolatze lanetan ibili garenak baita ere. Hala ere, lehenago esan dudan moduan, Arabiar komunitateko jende ugari gerturatu zen eguna ospatzera.

4. Noiztik zara Irurtzungo Arabiar komunitateko

presidentea?
2016 urteko ilbeltzean sartu nintzen presidente moduan. Urte bat eta hilabete gutxi batzuk daramatzat karguan, eta oso gustura nago, egia esan.

5. Noiz iritsi zinen Irurtzunerara?
2001 urtean iritsi nintzen Irurtzunerara. Hona iritsi nintzen nire osaba hemen bizitzen, eta hori dela eta Sakanara etortzea erabaki nuen. Irurtzunen bizi zenez, iritsi eta lehen bi urteetan hemen bizi nintzen 2003 urte arte. Geroxeago, Iruñera joan nintzen bizitzera 2003tik 2009ra. Nire emaztea eta familiarekin berriz ere elkartzeko lortu nuenean, Irurtzunerara itzultzea erabaki genuen. Beraz, 2009tik nire emazte eta seme-alabekin Irurtzunen bizi naiz.

6. Zer nolako harrera egin dizute Sakanan?
Ba oso ongi, asko gustatzen zait eskualdea. Oso gustura bizi gara hemen, ohitua gaude, eta aldatzea horrelakotan kostatu egiten da. Urte asko daramatzagu dagoeneko Sakanan aldean.

7. Zein herrialdek osatzen duzue Sakanan Arabiar komunitatea?
Gehiengoa Marokorrek gara Irurtzunen. Sakanako beste herri batzuetan ere Arabiar gehiago gaude, Etxarrenen adibidez pertsona bat dago, Uharteko Arakilen ere familia asko gaude, Lakuntzan, Arbizun, Etxarri Aranatan. Beste herrietako jendearekin normalean Irurtzunen elkartzeko gara.

8. Nolako izan da zuendako integrazioa?
Guretako oso normala izan da prozesu guztia. Guk mundu guztia errespetatzen dugu, norberak bere kultura dauka eta hori onartu beharra dago, oso garrantzitsua da aipatutakoa.

9. Arabiar Kulturaren Eguna ospatzerenak laguntzen ahal du integrazioan?
Jakina, hasiera batean jendea hurbiltzea pixka bat kostatu zitzaion, baina ondoren oso pozik geratu ginen jendearen parte hartzearekin. Hasieran esan dugun bezala, horrelako jaiek gure kultura ikusarazten dute eta integrazioan pausoak emateko ezinbestekoa da.

10. Beste ekitaldirik prestatu duzue?
Bai ekitaldi gehiago antolatzeko asmoarekin gabiltza. Gure mezkita erakusteko aukera eman nahi diogu jendea, bertan zer egiten dugun ikus dezaten. Buruan hainbat ideia ditugu eta horiek denak aurrera eramatea gustatuko litzaike.

11. Zenbat pertsonak osatzen duzue Arabiar komunitatea Irurtzunen?
Hamar familia inguru biziko gara gora gutxi gorabehera, osotara hogeita hamar ala berrogei pertsona inguru. Herri batek eskaintzen dituen zerbitzu guztiak ditugu eskura, medikua, udaletxea, hezkuntza eta Irurtzunek eskaintzen ez dituen gainontzeko gauzak Iruñean dauzkagu.